

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz



Aurkibidea

Udalerria: Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz

Sarrera



Bizkaiko Lea-Artibai eskualdean kokatutako udalerria da. 24,5 km² eta ia 400 biztanle ditu. Herria honako auzoek osatzen dute Munitibar eta Gerrikaitz kaskoez gain: Arbatzegi, Berreño-Aldaka, Uriona, Gerrika eta Totorika. Lea ibaiak zeharkatzen du eta Oiz (1.029 m) mendiaren magalean dago. Muxika, Mendata, Ziortza-Bolibar, Aulesti eta Berriz ditu mugakide. Historikoki Arbatzegi elizatea zen eta Gerrikaitz uria edo hiribildua; bere hurbiltasunagatik (Lea ibaiak baino ez ditu banatzen) azkenean "Munitibar" eremu osorako izenaren gerizpean fusionatu zirenak: 1883an bat egin zuten. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 377
- **Euskaldunak:** %91,24

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **36**
- Zintak: **42**
- Pasarteak: **301**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **299**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Lea Ibarreko Ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera
- Munitibarko ahotsak

- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Pilar Amesti Armaolea (1926-2016)



Gerrikaitz auzoko Bengola baserrikoa. Mendatako [Bittor Irazabal](#)ekin ezkondua. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarriketa, gerrako bizipenak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Txomin Apoita Zubizarreta (1924-2012)



Munitibarko Aldaka auzoko Loiti baserrian jaio zen 1924an. Aita Bolibarko "Zeinke" (Zeinka) auzokoa zuen eta ama Barinagakoa. Zazpi neba-arrebatatik gazteena da; bere neba-arrebak Bolibarko Zeinkan jaio ziren. Bederatzi urtegaz Arratera joan zen meza-laguntzaile lanetan 12 urtera arte, eta gerra hasierak bertan harrapatu zuen. Markinako harrobian aritu zen zazpi urtez beharrean, ostean Gernikako Toñan eta bost urtez Maiarren zaintza lanetan. Munitibarko Totorika auzoko Junene baserriko Maria Irustarekin ezkondu eta bost alaba izan zituzten. Ezkondu ostean, Bolibarko Zeinkako Loiti baserrira joan ziren bizitzera. Duela 35 urtetik Gernika-Lumon bizi dira. Emazteagaz batera egin zitzaion elkarriketa.

Elias Arrate Armaolea (1903-1994)

Munitibarreko bizargilea. 18 urterekin zabaldu zuen denda eta bizarra kentzeaz gain abarketak ere egiten zituen dendan bertan edo inguruko herrietakoetan saltzeko. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarriketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Miren Karmele Artatxebarria Bilbao (1934)

Totorika auzoko Larriñazar baserriko alaba. Aita Munitibarrekoa zuen eta ama Uriona auzokoa. Zortzi senidetan zazpigarrena izan zen. Munitibarreko eskolan ibili ostean, Gasteizko kolegio batean eta Bilbon egon zen.



Bilbon osaba-izeko batzuen etxean egon zen bizitzen eta hango bizimodura ondo ohitu zela dio. Izan ere, gerora bere adinekekoekin alderatuz nahiko modernoak izan da: prakak gazterik jantzi zituen, gidabaimena atera zuen... Baserriko bizimodua ez zuen oso gogoko eta ezkondu ostean, Gernika-Lumon denda zabaldu zuten eta bertan aritu zen erretiratu artean. Berreño auzoko Astorkira ezkondu zen [Jesus Ituarte](#) gaz. Biek batera eman zizkiguten lehengo bizipenen berri.



Luis Mari Arteatx Atxaerandio (1948)

Asun Aspiazu Jaio (1924)

Barrenekua baserrikoa.

Agustin Basterretxea Solozabal (1922-2012)



Munitibarko Totorika auzunekoak. Ahaztuen Oroimena taldekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko.

Jazinto Basterretxea Zuberogitia (1930-2020)

Berreño auzoko Susaeta baserrian jaio zen 1930. urtean. Ama Aulestitik bere jaiotetxera etorritakoa zen eta aita Mendatako Solaburukoa. Bost neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Gerra Zibilean, etxetik joan behar izan ziren ugazabak irten eraginda eta Madarieta baserrian egon ziren 19 urtez, Aldakazabalera joan arte. Geroztik, bertan bizi izan zen. 1954. urteko abenduan osabarengana joan zen Idahora (AEB) eta 7 urtez aritu zen artzain beharretan. Ameriketatik bueltatu eta "kamiñeru" lanetan ibili zen erretiratu zen arte. Hala ere, sekula ez ditu baserriko lanak eta bertako bizimodua utzi. Totorika auzokoa du emaztea.



Fermin Bernedo Uriarte (1924-2017)

Gerrikaizko Elbirena (Taberna zaharra) etxekoa.

Eugenia Eguen Bengoetxea (1936)



Totorika auzoko Montezuri baserriko alaba. Bederatzi neba-arrebatatik laugarrena izan zen. Umetan baserriko beharrek uzten zutenean joaten ziren eskolara, beti izaten baitzuten behar asko egiteko. Hamabost urtegar Lekeitioko medikuarenera joan zen neskame lanetan. Gerora Enperatriz hotelean ere aritu zen. Bere auzoko Arrizabalaga baserriko [Jose Manuelegaz](#) ezkondu eta bertan osatu zuen familia; biek batera kontatu zizkiguten lehengo bizimoduari buruzko kontuak.

Maritxu Eguen Bengoetxea (1929-2024)



Totorika auzoko Montezuri baserriko alaba. Hamalau neba-arrebatatik bigarrena izan zen eta etxean zuten beharra zela-eta, hamahiru urtegar Txori tabernara joan zen neskame. Hiru urtez Txorin egon ostean, Bolibarko medikuarenera joan zen eta medikuagaz Somorrostron eta Larrabetzun ere egon zen lanean. Bere auzoko [Angelita Malleagaz](#) eta Gerrikaizko [Julia Zuazogaz](#) batera kontatu zizkigun beraien ume eta gazte garaiko Munitibarko kontuak. Argazkian ezkerrean agertzen dena da Maritxu.

Patxi Etxabe Bilbao (1926-2014)

Munitibarko Uriarte baserrikoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa 2013an.

Jose Karmelo Goikoetxea Abanzabalegi (1965)

Munitibarko Garroetxetxu baserrikoa. 10 urterekin, 1975ean, Munitibarko eskolatik Bekobentara joan zen eta han ikasi zuen OHO bukatu zuen arte.

Jose Inazio Ibaibarriaga Jaio (1928-2025)

Munitibarko Mintegi baserrikoa.

Kepa Intxausti Rekalde (1956)

Munitibarko Errotakoa.

Bittor Irazabal (1926)

Gerrikaitzen jaioa, bertan bizi izan da beti. Ehiza eta txori kontuak izugarri gustatzen zaizkio, eta horren gainean azalpen zabalak eman ditu.

Esteban Irusta Mallea (1934)

Munitibarko Totorika auzoko Junene etxean jaioa. Ama Mallene baserrikoa zuen eta aita Junenekoa bertakoa. 9 neba-arreba izan ziren. [Maria](#) arrebarekin batera egin zioten elkarriketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerrako kontuak jasotzeko.

Maria Irusta Mallea (1928-2024)

Munitibarko Totorika auzoko Junene etxean jaio zen 1928an. Ama Mallene baserrikoa zuen eta aita Junene bertakoa. 9 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. 6 urterekin hasi zen eskolan eta gerra sasoian Bilbora joan zen, lehenengo Indautxura eta gero Plaza Barri ondoko etxe batera. Aldaka auzoko Loiti baserriko Domingo Apoitarekin ezkondu eta 5 alaba izan zituzten. Ezkondu ostean Bolibarko Zeinkako Loiti auzora joan ziren bizitzera. Azken 35 urtetan Gernika-Lumon bizi da. 2010. urtean bere senarragaz batera egin zitzaion elkarriketa. 2016an Esteban nebagaz batera egin zioten elkarriketa Ahaztuen Oroimena taldekoek, gerrako kontuak jasotzeko.



Jesus Ituarte Lamikiz-Basterretxea (1924-2021)

Berreño auzoko Astorki baserrian jaio eta bizi izandakoa, bere ama bezala. Aita Aldaka auzoko probalari ezaguna izan zen. Gerra aurreko eta osteko Munitibarreko gorabeherak ondo gogoan ditu. Munitibarreko bonbardaketa eguna Gernika erre zuten bera izan zen eta Jesus Gernikan egon zen orduan, babesleku batean ezkutatuta salbatu zuen bere burua. 40 urtez herriko baserritarren sindikatuko diruzaina izan zen. Etxe ondoan Bermeoko itsasontzietarako ikatza egiten zuten. Herriko lehenengo motorretako bat berea izan zen. Ezkondu ostean, Gernika-Lumon supermerkatua zabaltu zuen emazteagaz batera. Bere emaztea, Totorika auzoko [Miren Karmele Artaetxebarria](#), ere aritu zen beragaz batera antzinako kontuez berbetan. Baserriko beharretan aritu izan da beti.



Jose Manuel Jaio Madariaga Arrizabala (1932-2019)



Totorika auzoko Arrizabalaga "Arrizabala" baserrian jaio zen. Ezizena ere jaiotetxekoa du. Aita bertakoa zuen eta ama Iruzubietakoa. Gerraosteko eskolan ikasi zuen orduko maisu-maistra gogorrekin. Soldadutzan egon ostean, (Elko, Nevada) joan zen artzain eta kanpero zazpi urtetarako. Handik bueltan bere auzoko [Eugenia Eguen](#)egaz ezkondu zen. Ikazkintzan, gizon-probetan, sokatiran eta trontzan ibilitakoa da, besteak beste. Bere emazteagaz batera egin genion elkarriketa.

Justino Korta Ikaran (1922-2013)



Ispasterko Larrinaga auzoko Uribarren baserrian jaio zen 1922. urtean. Gurasoak ere bertakoak zituen, aita urte askoan Ameriketara ibilitakoa. Zortzi neba-arrebatatik seigarrena izan zen. Munduko behar klase guztiak egin dituela dio, baina batik bat igeltsero lanetan aritu izan da. Munitibarko frontoia egiten etorri zen Munitibarrera eta bertako Ondamendi tabernako alabagaz ezkondu zen 38 urte zituela. Muslari ezaguna da inguruetan, 63 garaikur baititu, tartean 38 txapel.

Pello Lejarzegi Urriolabeitia (2000)

Munitibarko Basatarrekua baserrikoa. Lehen Hezkuntza Munitibarren egin zuen, eta DBH Bekobenta eskolan.

Angelita Mallea Madariaga (1941-2016)



Bere abizen bereko Totorika auzoko Malline baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Bolibarkoa. Herriguneko Basterrekua baserrira ezkondu zen. Bere auzoko [Maritxu Eguen](#) eta Gerrikaizko [Julia Zuazo](#) izan zituen lagun elkarriketan. Argazkiaren erdian ageri dena da.

Joxepa Mendiolea Ansotegi (1924-2021)



Gerrikaitz aldeko Ganbe auzoko Trokazulon jaio zen 1924an. Aita bertakoa zuen, artzaina, eta ama Gautegiz-Arteagakoa. Hamaika neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. Gerrikaitz eta Ganbeko eskolan ibili ostean, umetatik hasi zen beharrean ardizain zein neskame. 32 urteagaz ezkondu zen Olatxu errotara eta bertan osatu zuen familia.

Juan Muniozguren Muniozguren *Nabarro* (1935-2016)



Gerrikaitzeko Ganbe auzoan jaio zen. Gurasoak lehengusuak ziren: aita bere jaiotetxekoa eta ama Kaltzada auzoko lporlakoa. Auzoko eskola beraien etxe aurrean dago eta maistra beraienean egoten zen apopilo. Gerra garaian, aita beste herritar batzuek atxilotu eta preso hartu zuten. 17 urte zituela basoko beharretan hasi zen eta baserriko lanekin batera hori izan zuen ogibide.

Sorkunde Olano Zenigaoinandia (1966)

Munitibarko Okiz baserrikoa. Ganbeko eskolan eta Bekobentan ikasi zuen.

Jose Uberuaga Garrogerrikaetxebarria *Garro* (1929-2018)



Gerrikaitz auzoko Garro baserrian jaio, hazi eta bizi izan da. Ama bertakoa zuen eta aita Bolibarko Gortaguren auzokoa. Lau neba-arreba izan ziren, baina arreba eta ama gazterik hil zirenez, emakume beharrak egitea egokitu zitzaion. Gerra aurretik Gerrikaizko barberua eta moja izan zituen irakasle. Gerraostean, oster, Munitibarreko mutilen eskolara joan zen, hor dena zen erdaraz; hala ere, ez ei zuen gaztelaniaz ikasi, soldadutzan ikasi zuen-eta. Herria bonbardatu zutenean, auzoko hiru hil zituzten, tartean lehengusina; eraso beraien etxetik ikusi zuen eta hiru egunez basoan egon ziren ezkutatuta. Hamalau urte zituela hasi zen ehizan eta zaletasun handia izan du. Ezkondu ostean, hiru urtez Idahon (AEB) egon zen aita eta anaiak bezala. Handik bueltan Gernika-Lumoko Dalia lantegian aritu zen beharrean erretiratu arte.

Tomas Uberuaga Urriolabeitia (1957)

Munitibarreko Gerrikaitz auzoko Antorrene baserrian jaio zen 1957. urtean, baserrian bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen, ama Munitibarreko Bastarrekoa baserrikoa. 5 neba-arrebatatik hirugarrena eta lehen semea izan zen. Herriko kontuak eta bertako historia oso ondo ezagutzen ditu. Herriko alkatea, zinegotzia eta herri mugimendu desberdinerako kide aktiboa izan da hainbat urtez: [Lea Ibarreko Mankomunazgoa](#)ren sorreran parte hartu zuen, bertako lehendakaria ere izan zen; UEMAren zein Udalbiltzaren sorrerako kide ere izan zen... 44 urtez Matienako enpresa batean aritu arren, sekula ez zion utzi baserriko lanei.

Jose Urberuaga Urionaguena (1929)

Goikoetxebarri baserrikoa.

Juanita Urionaguena Urionaguena (1930)

Gerrikaizko Aitxarrakoa.

Javier Urkiola Bilbao (1961)



Uriona auzoko Gunengu baserrian bizi ziren erreterero. Gurasoak herri bertakoak ziren. Lau senidetan gazteena, 1984an Ameriketara joan zen artzain, Gernika inguruan lan gutxi zegoelako orduan. Amaren aldetik bost osaba joan ziren AEBetara, aurretik. Osaba batek ireki zion bidea. Wilson konpañiara joan zen, Hammett herrira (Idaho). Arrantxoan bertan geratu zen bizitzen. Ezkongabea da.

Irene Urriolabeitia Mallea (1967)

Munitibarreko Basterreko baserriko alaba, bi alabetan nagusiena. [Ama](#) Totorika auzokoa zuen eta aita bere etxe berekoa. Munitibarreko eskola zarratu zuten 7 urte zituela eta Markina-Xemeineko eskolara joan zen eskualdeko beste ume gehienak bezala. 14 urte gaz ikasketekin jarraitzeko Gasteizera joan zen eta han bizi izan zen amuma eta izeko bategaz. Bilbon Haur Hezkuntzako ikasketak egin eta irakasle lanetan jardun da ordudanik, Markina-Xemeingo Bekobentako irakasle zen elkarrizketa egin zitzaionean. Umetako eta gaztetako herriko kontuak ondo ezagutzen ditu. Basterrekon bertan osatu du bere familia.

Juani Zuazo Uriarte (1940)



Bost neba-arrebatan azkena, 15 urterekin Donostiara joan zen bizitzera eta hoteleko zerbitzari gisa aritu zen lanean. Jose Antonio Urretabizkaia Aristegirekin ezkondua eta hiru seme-alaben ama.

Julia Zuazo Uriarte (1929)



Gerrikaitz auzoko "Paraisu"n jaio eta hazi zen. Gurasoak ere gerrikaiztarrak zituen. Gazterik hasi zen neskame lanetan auzoko Mendiola baserrian. Totorika auzoko [Angelita Mallea](#) eta [Maritxu Eguen](#)egaz batera egin genion elkarrikketa. Argazkian eskumako partean agertzen dena da. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrikketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Jon Zuazo Urionaguena (1972)

Munitibarko Aixabide baserrian jaioa. Lehenengo Munitibarko eskolan ibili zen, eta gero Bekobentan.

Joseba Zuazo Urionaguena (1973)

Munitibarko Aixabide baserrian jaiotakoa. Lehenengo Munitibarko eskolan ibili zen, eta gero Bekobentan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Bizargile eta abarkagile

- **Hizlaria(k)**: Arrate Armaolea, Elias
- **Elkarrikketatzaillea(k)**: Erkiaga, Josu
- **Erref**: MUN-004/001
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: gaztetan Bilbora sastre ikastera joaten pentsatu zuen, baina azkenean bizargile ikasi zuen. 18 urterekin bizartegia jarri zuen Munitibarren, eta Gernikan ere aritu zen abarketak egiten; azken langintza horretan denbora gutxi iraun zuen. Azkenean, lokak berean jarri zuen abarketan egiteko tailerra eta bizarra kentzekoa. Abarketetarako materiala Azpeitiko Jose Mari Astigarragari erosten zion. Bere dendan eta beste dendei enkarguz ere saltzen zituen.

Transkripzioa

Bueno... neuk esangotzuk neure gaztetaren asitteko ipointtu batzuk. Da lelengo pentzau naban, ba, sastre jutie Bilbora. Sastre, bai, sei illebeta einje molda politten negola, ba, etxera ekarri nenduen da, ba, lastima ixen san da, gero, ba, gero, ostabe etxi'n pentzau genduen, ba, aitte sanak pentzauban, ba, ostabe, ba, abarketak edo bixerra kentzen ikesi edo

barberijje edo soser, da gero barberijje ikesi naban lelengo ostabe. Da, ba, barberijjoi, ba, ipini naban neuk amasortzi urte neukesanien da gero, ba ostabe abarketak egitten ikesi bidala, ba, da tire... abarketak eitten Gerniken. Da Anjel Lejarreta esetetzeana san abarketerue da enaban nik denpora asko eiñ se orduko puntadie botateko manejo andijje artute neun sastrerijjan da. Enaban esebe denporarik eiñ da, ba, tire... Gero, barberijjok eta sastrerijjok eta, danokiñ ipiñi naban lokalttu bat da gero, ba, oñ iarogei urte eukittuan arte segidutzet lanori da ontxe... urte bi itxitzet danai da oñ emetxe, ba, triski txe traska,.. emetxe selan edo alan. Materijjala, Aspeittittik ekartenaban, Jose Mari... Jose Mari... Jose Mari, Jose Marin tall,.. sertik, tailerretik ekarteneban ori... Astigarraga, Jose Mari Astigarraga da, ba, arek telefoniau eskero be bardiñ botateban: neuk ser bien, axe.

Gero, ba neuk emen abarketak einjje, ba saldu berton eittenittun. Gure ixeben deudaku'pe, ba, eurentzako be ia abarketa batzuk ingo neukosan da... es, esileinan nik eiñ se... astotxintxie ser dan estakixu su' paiña, astun sera... amarrie asko eittenaban iigias da are'pe asko... dendakuek siren, Gernikako dendak eta ferreterijetaku'k eta asko kasteteben, Markiñeku'pe bai tte, ta, ba, danak eitteko ta, ba, eitten be denpora ona bada bierra soser ein bier da, ba, alaxik neure abarketok eta, ba, gero egunin dosena bat eitteko abilldadie euki naban, tela ta aspi.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. `Markesaren alaba´ eta beste kopla zahar batzuk

- **Hizlaria(k):** Arrate Armaolea, Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Erref:** MUN-004/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:46. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Markesaren alaba´ eta beste kopla zahar batzuk abesten ditu segidan.

Transkripzioa

Seruak eta lurrak
egin situsana
memoriya argitzen
dator guregana.

Esperantzia badaukat
sedorrek emana
kunplituko dedala
desio dedana.

Desio dedan itza
manifestatzeko
seurekiñ Antonio
nago ixateko.

Amaren malesia
korriora joan da

Antonio il sala
egin suen karta.

Gabe pasatu eta
biyamon goixian
entiarua suen
biarren klasian.

Markesaren alabak
eruan tristesa
eseukan amairik ee
se lagunei segitako.

Exosuak aides aides
iferra dulsie??
landan mintzen dorrien
errekie. ?

Andixek nentorrela
topau neban birjiña ai andrie
orrasketan ebala
buruko ulie.

Etzi bada ai andrea,
neuk ulan sintie
kanie mosten duket?
Madrillen kostie.

Eunteietan daukagu
Medisia telie
urriagas ideskiten?
siderra minbie?

Nor edo seiñ ete da
areren joslie
errege Don Pellipen
alaba lindie. (bis)

3. Familia eta harremanak

3.1. Hilekoa zer zen ere ez zekiten

- **Hizlaria(k):** Eguen Bengoetxea, Maritxu; Mallea Madariaga, Angelita; Zuazo Uriarte, Julia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUN-016/022
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:54:13. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

- **Laburpena:** Ur berorik ez zegoenez, hilekoarekin zeudenean ez bainatzeko edo ez garbitzeko esaten zieten, hilekoa moztuko zitzaielakoan. Hilekoa etorri zitzaienean zer zen ere ez zekiten, eta hilekoarekin zeudenean jantzten zituzten trapuak ezkutuan garbitu behar izaten zituzten, ur beroa eta lixibaz.

Transkripzioa

- Esan dozu garbitxu domekatan baiña hillekuekaz egonda-eta, andrazkoa?
- Angelita: Bueno, ordun ba zoyer. Gauza haundik ez ordun be garbittu.
- Julia: Ordun be, asko ez.
- Angelita: Esan gure dotena /guotena/, domeketan bai baiña bixen bittartin...
- Bai baiña diñot, hillekuekaz egon ezkerro eta igual hori be, garbitxuko ziñien orduen.
- Angelita: Garbittu bai baiña ez esan gure dot /gurot/...
- Julia: Oingo besterik ez. Oingo bestin.
- Angelita: Hori baño gogorraue, hillekuaz eoten zanin ez zala baño biher esaten eben. Kortau eitten zala hilleku te. Bai, ez zala baño biher. Osea gorputzen kontrasti. Klaro, ordun ur beroik bez ta ur hotzagaz baño biher ta hori gorputzen kontrastiaz ez zala baño biher.
- Maritxu: Txarra dala esaten eben bai.
- Angelita: Hori esaten eben. "Ene, umie gero, ez zaitxez busti gero hilekuaz ta zaz, ume!"
- Zuek jakin zenduen zer zan hillekue?
- Angelita: Bai zera jakin.
- Heldu zan egunien?
- Julia: Zer etorri biher ete ban hantxe.
- Angelita: Zer ete dan. Nik neuk badakit: "Ama, nin neu odoletan naz. Nik ez dakit zer deketan". "Trankil trankil, ez da hori ezebe ta baiña, aurretik ezebez.
- Julia: Oin dakizienan erdixe bez.
- Angelita: Ta berak konpresa batzuk eta baiña telazkuk e bueno, pañozkuek, pañozkuk eindde ta. Eukitten zittuezan.
- Julia: Baña oinguk jaurti eitten di ta harek garbittu ein biher zin /bizin/ .
- Angelita: Bai, harek garbittu ein biher zin /bizin/. Ta iñok ikusi ez daixen gordeta ixil-ixilik.
- Maritxu: Siketzen be ni akordetan na baten siketzen ipini nittuzen holan e zerin de gure amumak: "Horrek ez di ipintten hor bistan".
- Angelita: Bai, bai, hoixeaittik ba, harek ezkutaute, harek iñok ez zittun ikusi biher. Harek sagrauek zin. Gauza sagrauek zin harek.
- Julia: Iñor ez euen artien garbittu te...
- Angelita: Bai, iñor ez dauenin garbittu be.
- Maritxu: Horrek hor bistan ez di ipintten.
- Julia: Iñok ikusi ez daixen.
- Ta horrek be suteko heutsegaz?
- Angelita: Bueno ez gure denporan baeuen ia leja, baeuen leja. Lelengo jabonaute biher dan modun /bidamodun/ ta gero lejiar ta. Bai baeuen leja, gure denporako baeuen.
- Baiña horrek garbitzie erreza ez zan izengo ba, pañuek-eta.
- Angelita: Puf! ademas siketute, harek.
- Maritxu: Siketute bai, baiña momentun eindde arin kentzen zin e!
- Julia: Bai ba, jaboiaz ta errez garbitzen eben. Apur bat siketzen badie gogortu eitten zin.
- Angelita: Bai, bai, baña iñor etxin egoten bazan ezin zenduzen garbittu.
- Maritxu: Ni jeneralin bakarrik egoten nitzen etxin ta.

- Angelita: Bai, hoixe, bakarrik egon ezker zoz.

- Maritxu: Danak egoten zin kanpun biherin ta ni bakarrik hantxe.

- Angelita: Iñor eoten bazan etxin ezin zenduzen garbittu, iñor etxin ez dauen.

- Julia: Neuk be Mendiolan egon nitzenin, harek danak ebixen artien garbitzen nitxun harek ta balkoien ipiñi, balkoien barrun.

- Angelita: Ta gero, erdi bustixek badaz ba hau edo barrure sartu, iñok ikusi ez daixen.

- Julia: Jesus...

- Angelita: Horrek holantxeik die.

- Maritxu: Lehen etxin umik be hoixe, zerakin ipintten zin...

- Angelita: Bai, zerak, pañuk, pikuk, pikuk. Hiru puntuko...

- Maritxu: Gasak azpidxen. Ta harek be garbittu ein biher ixeten zin.

- Angelita: Bai, harek be garbittu ein biher izeten zin.

- Maritxu: Bai, oingo modun bota ez.

- Angelita: Bai, geure umin denporan be bai e!

- Maritxu: Geure umin denporan be bai.

- Angelita: Ta gero zelako bentajie honek bestiok etorri ziñin, bueno, botatekuk danak. Diferente.

- Maritxu: Ta harek be ur irakiñe bota ta lejiak ez jakuela /etxakuela/ ipiñi biher umin zera ta.

- Julia: Eperdixe erretan jakie.

- Angelita: Bai, eperdi ta harek be jabon-uraz pixkat e egosi, zera egosi.

- Maritxu: Egosi ur beruaz ta kentzen dxakuezan mantxak.

- Angelita: Garbitzen zin.

- Julia: Ez zin errezak egoten gero.

- Angelita: Ez, ez, ez.

- Maritxu: Ta ba holantxeik. Holantxeik zan gure bizimodue.

- Julia: Oingu ikusi. Oinguk holakuk izen bazittuan, eneei!

- Angelita: Siñestu bai ala?

- Julia: Zertzuk pasau biko zittuen.

- Angelita: Siñestu bai?

- Siñestu bai, baia. Siñestu bai baña.

- Angelita: Neuk dakitteten baten hoixe esan da: "calla abuela" esango dabe, "eres más antiguadas, dices cada disparate". Lehenengoko berbie.

- Julia: Bai, Iziarrek-eta.

- Angelita: Bueno!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Neskak eskola batera, mutilak bestera (MUN-003/004)

Sei urte inguru zituztela hasi ziren eskolan; neskak eskola batean, eta mutilak beste batean. Neskak maistrarekin eta mutilak maisuarekin ibili ziren. Irakasleak kanpokoak izaten ziren; erdaldunak. Mutilen maisua "okerra" omen zen; Mariaren anaiei erregelarekin buruan jotzen zien. 80 mutiko inguru egoten ziren maisu bakararekin. Txominek eskolako pasadizo bat kontatzen du.

2. Gerra denboran, Bilboko familia baten etxera (MUN-003/005)

Gerra denboran, bonbardaketa garaian, Munitibarren zegoen Maria. Gero, Bilboko familia batek beren etxera eraman zuen; eskolara joaten zen, eta etxean lana egiten zuen. Bilbon urte batzuk egin zituen. Gerraostean, ez zen Munitibarko eskolara joan.

3. Arratera, monagilo (MUN-003/007)

Arraten "monagiloa" behar zutela eta, bederatzi urte zituela joan zen hara Txomin. Gerra hasi zen egunean, Arraten zegoen. Munitibar eta Arrate artean dauden 45 kilometroak oinez egiten zituen, mendirik mendi. Arrateko eskolan ibili zen. Maistra batek ematen zien eskola, eta auzoko 16-17 neska-mutil ibiltzen ziren bertan. Munitibarko eskola baino hobea zen Arratekoa.

4. Dotrina eta abadeak (MUN-003/008)

Dotrina euskaraz ikasten zuten. Garai hartan, eskola baino garrantzitsuagoa izaten zen dotrina. Herrian hiru abade zeuden; gerra denboran, denak desagertu ziren. Garai batean, Gerrikaitzen bi eta Munitibarren hiru abade egon ziren.

5. Koroan abestutakoa (MUN-003/009)

Mariak elizan kantatzen zuen. Koruko entseguei buruz hitz egiten du. Erdarazko kanta ikasten zituzten obispoa joaten zenerako. Obispoa konfirmazioa ematera joaten zen.

6. Munitibarko erromeria (MUN-003/012)

Umetan, San Pedro eguneko erromeriara joateko baimena ematen zien apaizak; osterantzean, ez zuten baimenik izaten erromeriara joateko. Domekatan izaten zen Munitibarko erromeria, eta fama handia izan zuen. Frontoian egiten zen erromeria, eta inguruko herrietako jendea biltzen zen bertan. Neska-mutilak dantzara ateratzen ziren; mutilei paparrean zerbait jarri eta dantzaldia kobratzen zien. Erromeria arratsaldean hasi eta "aramattekotarako" amaitzen zen.

7. Dantza kontuak konfesatu behar (MUN-003/013)

Erromeria kontuak. Neska-mutilek "agarrauan" dantza egitea librea zen. Mutilekin dantza eginez gero, neskek apaizari konfesatu egin behar izaten zioten larunbatetan.

8. Konfesatokiak eta konfesioak (MUN-003/016)

Konfesatokiak nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Neskak eta mutilak ez ziren toki berean konfesatzen: mutilak apaizaren aurrealdetik; neskak, berriz, alboko saretatik. Konfesatzeko belauniko jarri behar izaten zen.

9. Mezara, lastazaoak hartuta (MUN-003/018)

Baserrian lana eduki arren, mezara joan behar izaten zuten igandetan. Maria eta etxeakoak Totorikatik Munitibarrera oinez egiten zuten bidea; lastazaoak erabiltzen zituzten argia egiteko. Lehenengo meza zazpiren izaten zen, eta, gero, meza nagusia egoten zen. Bideak ez ziren onak, eta basa ugari izaten zen. Munitibarrera iritsitakoan, Mariak eta oinetakoak aldatzen zituzten etxe batean; Txominek eta ez.

10. Mutilak tabernan, neskak paseoan (MUN-003/022)

Galarazita zegoen emakumeak tabernan sartzea. Arratsaldetan, mutilak txikito batzuk edatera joaten zirenean, neskak paseoan ibiltzera joaten ziren besotik helduta. Bitartean, mutilak tabernako atean jarri eta neskei begira egoten omen ziren.

11. Neska-laguntzak eta kalabazak (MUN-003/023)

Neska-laguntzei buruz hitz egiten dute. Urruti bizi zen neska bati etxera laguntzea, kalabazak jasotzea... Dantzako garaian, neskak kalabazak ematen omen zizkien gustu ez zituzten mutilei.

12. Gona eta oinetakoak (MUN-003/024)

Erromeriara joaten zirenean, oinetakoa aldatu egiten zituzten; biderako abarkak janzten zituzten gero. Mariak gona plegudunak erabiltzen zituen.

13. "Arropa, beti batzuekin" (MUN-003/026)

Beti arropa bera erabiltzen zuten; "beti batzuekin" dio Txominek. Mahoizko prakak erabiltzen zituen; goizean jantzi eta zikinduz gero, basa kendu, lisatu eta arratsaldean haiekin ateratzen zen berriro kalera. 20 urte inguru zituela hasi zen gabardina erabiltzen. Etxean ez zuten dutxarik.

14. Auzokoak orrazten ibilitakoa (MUN-003/029)

Ile-apaindegira permanentea egin behar zuenean bakarrik joaten zen. Maria auzokoei ilea orrazten ibiltzen zen. Ezkondu eta gero ere igandetan joaten zen auzoko emakume batzuk orraztera. Umeei eta lagunei ilea mozten zien.

15. Injekzioak jartzen ibilitakoa (MUN-003/030)

Auzokoei injekzioak jartzen ibilitakoa da Maria. Aldian aldian jarri behar izaten zitzaion injekzioa gaixoari, eta holakoetan, gaixoaren etxean geratu ohi zen lotan.

16. Herriko medikua (MUN-003/031)

Txomin eta Maria gazteak zirela, herrian mediku bakarra zegoen. On Pedro Gerrikabeitia zuen izena, eta Munitibar bertakoa zen. Haren emaztea maistra zen. Etxez etxe ibili ohi zen medikua. Herriko gizon bat ibiltzen zen medikuaren zerbitzuak kobratzen.

17. Junene etxeko errenta (MUN-003/032)

Mariaren familia Junene etxean bizi zen; etxeak hiru bizitza zituen. Junene herriko medikuarena zen, eta errenta uztarekin (argia, artoa...) ordaintzen zioten. Urtean behin ordaintzen zuten errenta.

18. Ermandadeari buruzko azalpenak (MUN-003/033)

Baserrien arteko ermandadea zer izaten zen azaltzen dute. Ermandadea elkarri laguntzeko elkartea zen. Zer galera hartzen ziren kontuan: ganaduren bat hiltzen zenean, denen artean ordaintzen zen galera hura...

19. Etxe erre eskean (MUN-003/034)

Lehen, etxeek ez zuten aseguratik izaten. Baserriren bat erretzen zenean, diru-batzeak egiten ziren laguntzeko. Diru asko batzen zen etxe erre eskean.

20. Gerra denboran, Arraten (MUN-003/037)

Gerra denborako oroitzapenak. Txomin Arraten egon zen gerra denboran. Plazentziatik Arratera joan zen gizon baten hitzak gogoratzen ditu. Erasoaldiei eta fronteari buruz hitz egiten du.

21. Munitibar eta Gernikako bonbardaketak (MUN-003/038)

Gerrako oroitzapenak. Munitibar bonbardatu eta arratsaldean, berriz, Gernika erasotu zuten. Txomin Munitibarren zegoen orduan. Maria, zortzi neba-arrebak, ama eta osaba batek etxetik ihes egin zuten bonbardaketatik babesteko. Menditik ikusten zuten Gernika gorri-gorri, sutan. Gerrako nahasmenaz, ihesaldiez, beldurraz... hitz egiten dute.

22. Bonbardaketa hurrengo eguna (MUN-003/039)

Gerrako oroitzapenak. Munitibar bonbardatu eta hurrengo egunean herria nola zegoen kontatzen dute. Txomin anaiarekin jaitsi zen herrira: herrian milizianoek utzitako tresna ugari zeuden; mantak, lapikoak, koilareak... Jendeak etxerako hartu zituen soldaduek kalean utzitako tresnak.

23. Milizioanoak etxez etxe eskean (MUN-003/040)

Bonbardaketa aurreko egunetan, milizianoak etxez etxe ibili ziren eskean. Milizianoek egun gutxi egin zituzten Munitibarren.

24. Koinatua, hildakoen gorpuak garraiatzen (MUN-003/042)

Bonbardaketa ondorenean, Gernika nola zegoen aipatzen dute. Txominen koinatu bat zortzi egunez aritu zen hildakoen gorpuak kamioian batik bestera garraiatzen; derrigortu egin zuten lan hori egitera.

25. Koltxoiak egiteko tela (MUN-003/043)

Gerra ostean, Gernikan erosten zuten arropa egiteko tela. Garai hartan, koltxoiak egiteko tela marraduna, urdinez tindatuta, saltzen zuten arropak egiteko. Arropak garbitutakoan, tinda galdetzen zuen eta marrak agerian geratzen ziren. Txominen arreba batek zakuarekin arropa josi zuen baserrian erabiltzeko. Diru falta handia zegoen.

26. Bonbardaketak Munitibarren eragindako kalteak (MUN-003/044)

Bonbardaketen eraginez, Munitibarko eliza apurtuta geratu zen. Herrian, etxe batzuk kaltetu ziren bonben eraginez, baino inor ez zen etxe gabe gelditu. Metrailak jotako neska bati buruz hitz egiten du. Soroetara bonba asko bota zituzten Alemanek.

27. Kanoi antiaereoak etxe ondoan (MUN-003/045)

Gerrako oroitzapenak. Txominen etxe ondoan kanoi antiaereoak ipini zituzten. Erasoak nondik nora izan ziren azaltzen du.

28. Fusilamenduak, ikusi ezinak eta "txibatazoak" (MUN-003/046)

Gerrako kontuak. Munitibarren ez zuten inor fusilatu; Bolibarren bai. Zigor moduan, herriko zenbait abertzalek guardia zibiletara joan behar izaten zuen.

Herrian "txibatazoak" izaten ziren; ikusi ezina izaten zen. Zenbait baserritako ugazabek (hiru-lau baserri zituen batek) errenteroak bere alderdiari (nazionalei) botoa ematera behartzen zituzten.

29. Arrateko frontea eta 'Abuelo' hegazkina (MUN-003/047)

Gerrako kontuak. Frontea Arraten egon zen, eta San Esteban egun baten apurtu zuten. Horren ondoren etorri ziren bonbardaketak. 'Abuelo' izenez ezagutzen zen hegazkinari buruz hitz egiten.

30. Uzta entregatzeko kupoa (MUN-003/048)

Gerra ostean, baserritarrek uzta entregatu behar izaten zuten udaletxean. Zenbat eta baserri handiagoa, orduan eta uzta gehiago entregatu behar izaten zen; garia, artoa, ilarra eta patata entregatu behar izaten zuten baserritarrek. Txominek kontatzen du patata erosi egin behar izaten zutela entregatzeko; euren lurrak ez ziren patata ereiteko egokiak. Hiru-lau urtean ibili ziren uzta entregatzen, eta denbora horretan, gosea pasa omen zuten.

31. Mendata eta Markinako errotetara (MUN-003/049)

Errotak itxita egon zireneko garaiaz hitz egiten dute. Mendatara, Markinara... joaten ziren errotara gauean, ezkutuan. Mendatako Errota Barri, Errota Zuri eta Ikerixe errotak aipatzen dituzte. Munitibarko Goikola eta Elortza errotak aipatzen dituzte.

32. Ogi beltza eta txerri-hiltzea (MUN-003/050)

Errazionamenduko ogi beltza ez zen jateko modukoa. Txerria ezkutuan hil behar izaten zen. Bonbardaketa egunean, txerria hil zuten Mariaren etxean.

33. Arroza eta ogi beltza (MUN-003/052)

Elizpean jasotzen zuten errazionamendua. Errazionamenduko txartelarekin joan behar izaten zen jakiak jasotzera. Abertzaleek arroza ematen zuten; nazionalek, errazionamenduan ogi beltza ematen zuten. Herrian txahala hiltzen zenean, jendea sebo eske joaten zen, olio falta izaten zelako.

34. Jatekoa, eratekoa eta jatorduak (MUN-003/055)

Jateko eta edatekoari buruz hitz egiten dute. Gabonetarako sagardoa ekartzen ibilitakoa da Txomin. Mariak kontatzen du auzoko gizon edadetu batek zahagian edukitzen zuela ardoa. Jatorduetan, denek mahaian ontzi batetik jaten zuten Txominen etxean. Euli ugari izaten zen lehen baserrietan.

35. Putzua, erreka eta lixiba (MUN-003/057)

Baserri ondoan putzua zuten. Zertarako erabiltzen zuten azaltzen dute: arropa garbitzeko, behiei ura emateko... Txominen arrebeak errekan egiten zuten lixiba. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du.

36. Etxean ura eta arropa garbiketa (MUN-003/058)

Mariaren etxean ura zuten, nahiko aspalditik. Etxetik hurre iturriak zituzten, eta hara joaten ziren arropa garbitzera (hiru etxetakoak joaten ziren hara). Etxean xaboitzen zituzten arropak, eta gero joaten ziren iturrira. Baldea buru gainean hartuta joaten ziren. Arropa garbiketa emakumeen lana izaten zen. Maria amari laguntzera joaten zen; izarak bihurritzen laguntzen zion...

37. Lixiba (MUN-003/059)

Lixiba nola egiten den azaltzen dute. Arropei usain ona geratzen zitzairen.

38. Domeketan, etxea garbitu (MUN-003/060)

Etxea nola garbitzen zen. Eskoba erabiltzen zuten; etxe askotan egoten zen "ginderriaz" egindakoa eskoba. Etxea domeketan garbitzen zen.

39. Bilboko egonaldiaz (MUN-003/063)

Maria gaztea zela, hainbat urte egin zituen Bilbon. Ama gaixotu eta etxera bueltatu zen. Bilbon, Indautxuko Karitateko Karmeldarreanean egon zen "interna". Mekanografia eta beste hainbat gauza ikasi zituen han; aldi berean, bertako lanak egiten zituen. Hura utzi, eta Plaza Barri ondoko etxe batean ibili zen josten ikasten. Mariaren amak erabilgarriagoa ikusten zuen josten ikastea makinaz idazten ikastea baino. Etxerako josi izan du.

40. Hainbat tokitan lan egindakoa (MUN-003/064)

Txominek baserritik kanpo egin izan du lana. Markinako harrobian zazpi-zortzi urtean ibili zen lanean. Gero, gaixotu egin zen giltzurrunetako gaitz bat zela eta; baliaezintasuna eman zioten. Horren ostean, Maierren bederatzi urte egin zituen guarda moduan lanean; zapatu eta domeketan egoten zen han.

41. Bi zerrategi herrian (MUN-003/066)

Garai batean, Munitibarren bi zerrategi zeuden. Zerrategiak non zeuden kontatzen dute. Basoko egurrak zerrategikoek erosten zizkieten.

42. Gernikako plaza eta "erregateroak" (MUN-003/068)

Maria eta Txominen gurasoak astoarekin joaten ziren Gernikara, plazara. Maria 'Correo' esaten zioten autobusean joaten zen Gernikara, oilo eta guzti. "Erregatero" asko joaten omen zen Gernikako plazara eroatera.

43. Markinara, astoan (MUN-003/069)

Astoarekin joaten ziren Markinara, plazan saltzera. Joan-etorria nolakoa izaten zen kontatzen du. Ateratako dirua amari ematen zion. Patatak, oilaskoak eta arrautzak saltzen zituen gehien bat. Ateratako diruarekin erosketak egiten zituen herrian.

44. Munitibarko dendara, arrautzak eramatera (MUN-003/070)

Munitibarko dendara arrautzak eramaten zituen Mariak. Azukrea, olio, txokolatea eta kafea erosi ohi ziren dendan; trukea egin ohi zuten. Munitibarren denda eta taberna asko zegoen lehen.

45. Emagina eta Gernikako klinika (MUN-003/073)

Mariaren amaren sasoian, Bernarda izeneko auzoko emakume bat ibiltzen zen emagin lanetan. Mariak Gernikako Dublang klinikan eduki zituen lau ume; beste alaba bat etxean eduki zuen. Klinika diruz ordaintzen zen.

46. Olgetak: aponka, erre-erreka... (MUN-003/075)

Ume sasoiko olgetak: aponka, sokadantzan, ezkutaketan, pilotan, erre-erreka... ibiltzen ziren. Mutilak mendira joaten ziren. Neskak eta mutilek ez

zuten elkarrekin olgetan. Aponka eta erre-erreak nola olgetan den kontatzen dute. Ez zen jolaserako tarte handirik izaten. Sokadantzako kantak aipatzen dituzte: 'Al pasar la barca' eta 'Cocherito lere'.

47. Munitibarri buruzko kanta (MUN-003/076)

Munitibarri buruzko kanta bat. Don Ramon abadeak irakatsi zien. Mariak letra aipatzen du.

48. Elizpean, pilotan (MUN-003/077)

Umetan, elizpeko horman ibiltzen ziren pilotan. Ez zegoen frontoirik herrian.

49. Munitibarko idi-probak, fama handikoak (MUN-003/079)

Munitibarko idi-probetan jende asko batzen zen lehen. Jendeak joko (apustu) asko egiten zuen. Apustulari bati buruzko pasadizo bat kontatzen dute. Txominek idiak zituen...

50. "Lekeition, arrain usaina..." (MUN-003/082)

Mariak familia zuen Lekeition, eta umetan ikusi zuen itsasoa aurrenekoz. 'Correo' autobusean joaten ziren Lekeitiora. Orduko oroitzapenak aipatzen ditu: arrain usaina...

51. Ezkontza eta eztei-bidaia (MUN-003/084)

Ezkontza. Munitibarko Sindikatuan egin zuten bazkaria. Bi-hiru eguneko eztei-bidaia egin zuten.

52. Bi taxi herrian (MUN-003/085)

Garai batean, bi taxi egon ziren Munitibarren. Taxi-gidarien izenak aipatzen dituzte.

53. Hiletak (MUN-003/086)

Garai bateko hiletak nolakoa izaten ziren kontatzen dute. Egun bateko gaubeila egiten zen etxean. Gau osoa arrosarioa erresatzen ematen zuten. Auzoko eta familiako gizon nahiz emakume biltzen ziren. Hurrengo egunean, gorpua lurperatu eta meza egiten zen. Meza ostean, bazkaria egiten zen.

54. Ur-sagardoa (MUN-003/088)

Etxeko sagarrekin sagardoa egiten zuten. Ur-sagardoa esaten zioten. Lehenengo egunetan, gozoa izaten zen. Nola egiten den kontatzen dute. "Gazie" esaten zioten sagarrak erabiltzen zituzten sagardoa egiteko. Urtean birritan edo egin ohi zuten sagardoa.

55. Sagar marmelada (MUN-003/089)

Mariaren etxea marmelada asko egiten zen. Sagarrarekin egiten zuten marmelada.

56. Hilkutxatik hitz egin zuen gizona (MUN-003/092)

Euria ari zuela eta, hilkutxa batean sartu zen gizon bati buruzko kontakizuna.

57. Argia etxean (MUN-003/094)

Etxean argia noiz jarri zuten. Txominen etxean beranduago jarri zuten argia. Lehenago, farola, petrolio-argia eta karburoa ibiltzen zituzten.

58. Bikotea nola ezagutu... (MUN-003/098)

Elkar nola ezagutu zuten kontatzen dute. Biak Munitibarkoak izanik, auzo ezberdinetakoak ziren, eta umetan ez zuten elkar ezagutzen.

59. Domeketan, barkilleroa (MUN-003/100)

Gozokiak. Domeketan barkilleroa joaten zen Munitibarrera. Barberuak ere gozokiak edukitzen zituen. Txokolatea ere jaten zuten.

60. "Ofizio guztiak zituen gizona" (MUN-003/101)

Munitibarren bazen gizon bat abarkak egin, gozokiak saldu, gizoni ilea ebakitzen... ziena. Herriko "sakritaua" ere bera zen; "ofizio guztiak zituen".

61. Amak egindako galtzak (MUN-003/102)

Galtzak amak egiten zituen etxean. Artilearekin egin ohi zituen. Artilea erosi egiten zuen.

62. Labesua (MUN-003/106)

Labesua nola egiten den azaltzen dute. Astean behin egiten zuen ogia.

63. Arbatzegi, Gerrikaitz eta Munitibar (MUN-005/002)

Arbatzegi, Gerrikaitz eta Munitibar. Garai batean banatuta egon ziren, baina hilerria eta udaletxea berdinak ziren. "Villa de Gerrikaiz".

64. Hamaika anai-arreba (MUN-005/003)

Umetan ardiak zaintzen zituen neguan eta udan neskame bezala lan egiten zuen beste etxe batean. Baserriak ez zuen familia guztiarentzat. 11 senide dira, 8 gizon eta 3 emakume. Nagusia Brasileria joan zen eta anai bat Ameriketara.

65. Trokazulo baserrian jaioa (MUN-005/006)

Trokazulon jaio zen, Ganbe auzoan. Aita bertakoa zuen eta ama Arteakoa. Arratzun ezagutu zuen, aitak bertako artzaina zelako, eta ama neskamea.

66. Bildotsak eta gaztak saltzen (MUN-005/007)

Baserrian ardi asko zituzten. Gazta Gernikan saltzen zuten astean bitan. Aita ibiltzen zen astoarekin joan eta etorrian, azokan, etxeetan edo tabernetan saltzen. Joxepa ere ibili da aitari laguntzen.

67. Ardiek Oizen jaten zuten (MUN-005/008)

Ardiak Oizen izaten zituzten, baina gaur egun ez dago ardirik bertan. Trokazulo baserria erre egin zitzairen eta orduan ardiak kendu zituzten.

68. Garai bateko bizimodua eta gaur egungoa (MUN-005/009)

Bildotsak eta txahalak saltzen zituzten. Garai batean baserriek ez zuten dirurik ematen, bizitzeko beharrezkoa ematen zuen. Ez zegoen dendarik lehen, dena baserritik eta eskuz egindakoa zen.

69. Gerraostean, kategoria ezberdinetako ogiak (MUN-005/010)

Gerraostean errazionamendua ezarrita zegoen. Okindegi batean lan egin zuen Joxepak eta kategoria ezberdinetako ogiak zeuden, aberatsentzat eta txiroentzat. Baserrian beti zegoen zergait jateko.

70. Munitibarko "Sindikatu" tabernaren jatorria (MUN-005/011)

Gerrikaitzen eta Munitibarren, taberna batean elikagaiak saltzen ziren. "Sindikatu" taberna denda bezala ireki zen, baserritarrei laguntzeko. Etxebizitzak erre eraiki ziren.

71. Ogia nola egin (MUN-005/012)

Baserrian ogia nola egiten zuten azaltzen du. Astean egiten zuten, gariarekin. Arto-irina taloarentzat eta egosita jateko erabiltzen zuten.

72. Gerrikaitz eta Munitibaberreko errotak (MUN-005/013)

Irina errotan ehotzen zuten. Gerra garaian errotak prezintatu egin zituzten. Bermeotik ere jendea joaten zen irin bila. Hiru errota egon ziren Gerrikaitzen eta Munitibarren beste hiru. Olatxu baserrian bizi da Joxepa, antzinan errota izandakoa.

73. Olatxu errota (MUN-005/014)

Olatxu baserri-errotara ezkondu zen 32 urterekin. Errotak ura nondik lortzen zuen eta funtzionamendua nolako zen kontatzen du. Auzokoek ere haien garia bertan ehotzen zuten. Garia ereiteari utzi zenean joan zen errota galtzen.

74. Errotan nola ordaintzen zen (MUN-005/015)

Errotan ordainketak egiteko, ekarritakoaren parte batekin gelditzen zen errota. Baserrian garia ere saltzen zuten, beti ere etxean erabili ostean sobran gelditzen bazen.

75. Errota egunez prezintatua eta gauez lanean (MUN-005/017)

Gerraostean errotak prezintatu zituzten, jendeari janari gabe uzteko. Jendea gauez hurbiltzen zen errotara eta egunean zehar berriz ere prezintoa jartzen zioten.

76. Olatxu errotaren ura nondik zetorren; uholdeak (MUN-005/018)

Ez du inoiz errota ur gabe ikusi. Husten bazen, errota piskat moteldu eta berriz ere ura hartzen zuen. Oizko erreka nagusitik etortzen zen ura errotara. Uholdeak ezagutu ditu.

77. Auzoan egondako aldaketak: bizilagunak, bideak... (MUN-005/020)

Auzoan oso bizilagun gutxi dira baina kotxe asko ibiltzen da. Garro baserrikoak izan zuten lehenengo autoa. Joxeparen senarrak motorra erabiltzen zuen hasiera batean. Burdi-bidea ez da erabiltzen.

78. Anda-bidea hilerrirarte (MUN-005/021)

Anda-bidea baserri ondotik pasatzen zen eta hilerriraino heltzen zen. Norbait hiltzen zenean, zuzenean hilerrira eramaten zitzaion, ez elizara. Sorbaldan eramaten zen gorpua.

79. Igandero apaizei ogia eman beharra (MUN-005/022)

Igandero, etxe batek apaizentzat ogia eraman behar izaten zuen, nahiz eta agian etxean haientzat ogirik ez izan.

80. Lutoak bi urte irauten zuen (MUN-005/023)

Lutoak bi urte irauten zuen. Neba bat hil zitzaion eta elizatik etxera joaten ziren. Neba nola hil zen kontatzen du.

81. Hiletan mezak garestiak ziren (MUN-005/024)

Hildakoen gorpuak sartzeko kaxak arotzak egiten zituen edo Gernikan erosten ziren. Garai batean oso kaxa xumeak izaten ziren. Mezak ordaindu egin behar izaten ziren eta neba hil zenean, apaizak esan zien bere ezkontzarako gordeta zeukaten dirua hiletan gastatu behar zutela. Abadearen arabera izaten zen. Senarra hil zitzaionean, Lekeitiotik zetorren abadeak hiletan jasotako diru guztia eman zion Joxepari.

82. Apaizei baserriko produktuak eman behar (MUN-005/026)

Apaizei garia eta txerriaren zati bat eraman behar izaten zitzairen, nahiz eta baserrian janari gutxi izan.

83. Artileak zorrak ordaintzen zituen (MUN-005/027)

Artilea saltzen zuten eta horrek baserriko zor asko ordaintzen zituen. Ekaina bukaeran mozten zitzairen ilea ardiei. Lantegi batzuei saltzen zieten.

84. Etxean egiten zen haria eta arropak josi (MUN-005/028)

Etxean haria nola egiten zen kontatzen du. Gero, galtzak, jertseak... egiten ziren etxean. Tindatu ere egiten zituzten.

85. Jertseak tindatzen zituzten etxean; lutoa (MUN-005/029)

Jertseak tindatu egiten zituzten etxean. Lutoa izaten zenean, arropa guztia tindatu behar izaten zen.

86. Gerra garaian arropak egiteko oihalik ez (MUN-005/030)

Gerra garaian ez zegoen oihalik eta zeukatena erabiltzen zuten.

87. Arropak garbitokian eta errekan garbitzen (MUN-005/031)

Neskame ibili zenean, garbitokian garbitzen zituzten arropak. Gerora, ez du hori gehiago egin baina errekan arropa aklaratu, bai. "Txinbo" xaboia erabiltzen zen asko. Ardiek asko zikintzen zuten arropa baina bere aita beti garbi-garbi joaten zen.

88. Aitak arropak eta trapuak garbitzen zituen (MUN-005/032)

Aitak berak garbitzen zituen bere galtzak, arropak eta gaztak egiteko trapuak. Adina izan zutenean, seme-alabek ere laguntzen zuten.

89. Gazta zelan egiten den (MUN-006/001)

Gaztaia egiteko prozesua azaltzen du: esnea iragazi, epela dagoen artean "lierra" (legarra) eman, zurezko irabiagailu batez eragin, eskuz ura kendu eta moldean sartu. Berehala gogortzen da. Saltzeko orduan, ur epelaz garbitu.

90. Kilo inguruko gaztak gehienak (MUN-006/002)

Egin eta biharamunean ere sal zitekeen gazta. Kiloko gaztak izaten ziren gehienak. Eginaldi bakoitzean bost edo sei gazta egiten zituzten.

91. Gazura txerrientzat eta pertsonentzat (MUN-006/003)

Gazura txerriei ematen zitzairen. Baina egosita, esnegaina bezala ogi gainean ipini eta jan zitekeen. Zenbaitek edan ere egiten zuen.

92. Gazta gari artean sartuta kontserbatzen zen (MUN-006/004)

Gaztaia egiteko moldeak metalezkoak ziren, portzelanazkoak gainetik. Zumitzezko saski batzuetan gordetzen zituzten gaztak. Galtzuaren gainean ontzen ziren. Kontserbatzeko, lehortu eta gari artean sartzen zituzten kutxan.

93. Haizeak kalte gaztari (MUN-006/006)

Haizeak arrakalatu egiten zuen gazta. Arinegi lehortzen zuen kanpoaldea. Zapi batez biltzen ziren gaztak.

94. Gatzatua ontzi handitik jaten (MUN-006/008)

Gatzatua sarri egiten zuten, jai egunez aparte ere bai. Azukrea bota eta ontzi handi batetik jaten zuten denek. Horrelaxe jatekoa zen hura.

95. Gatzatua egiten (MUN-006/009)

Gatzatua egiteko, legarrari neurria hartzea eta esnari tenperatura da oinarrizkoa. Hamar bat minutu inguru behar du gatzatzeko. Behi-esnez egindako gatzatua guztiz ezberdina da.

96. Berrizen hika, Gerrikaitzen zuka (MUN-006/011)

"Jatxi" aditza erabiltzen dute, eta "eratxi" ere ezagutzen du. Berrizen, Arratzun..., leku askotan bizita dago. Berrizen hika egiten zen, baina Gerrikaitzen ez, ezta bere aitak ere. Inoiz ikusi ditu gazteak nagusiei hika egiten, eta txarto irizten dio horri.

97. Gaubelak (MUN-006/013)

Hildakoari gaubela egiten zitzaion. Ez zen bere gustuko ohitura. Arrosarioa errezatu, ipuinak esan... horrela pasatzen zen gaua.

98. Hil-kanpaiak (MUN-006/014)

Berehala jakiten zen norbait hiltzen zenean. Hil-kanpaiak entzuten ziren, desberdinak ziren sexuaren eta adinaren arabera. Hilzorian zeuden umeak etxean bataiatzen ziren.

99. 'Luzia Josepa' da paperetan (MUN-006/016)

Gurasoek edo aitabitxi-amabitxiek ipintzen zioten izena umeari. Bera 'Luzia Josepa' da izenez, baina inork ez dio Luzia deitu. Beldur ziren jendeak "luzea" ulertuko ote zuen.

100. "Malamonja" izan zuen maistra (MUN-006/020)

Hamabi urterekin amaitu zituen eskolak. "Malamonjie" izenekoak, moja izandakoak ematen zuen Gerrikaitzen eskola. Gero Ganbe auzoan ("Anbre") ibili zen. Lau erregelak ikasi zituzten, ez askoz gehiago.

101. Diru-zigorra euskaraz egiteagatik (MUN-006/021)

Maistra erdaldunak izaten zituzten Ganbe auzoan ("Anbre"), eta euskaraz egiteagatik zigorra izaten zuten. Dirutan ordaindu beharreko zigorra.

102. Arratzun, Berrizen eta Gernikan lanean. (MUN-006/022)

Arratzun ibili zen aitarekin artzain. Ondoren Berrizera joan zen lanera baserri batera. Gero Gernikan hasi zen lanean okindegi batean. Hantxe ikasi zuen erdara apur bat.

103. Etxeko lanak zein okindegikoak bere gain (MUN-006/024)

Etxeko eta okindegiko lanak egiten zituen. Ordainsari txikia zuen. Labeko lanak nolakoak izaten ziren kontatzen du.

104. Ahizpa batzuk neskame, beste batzuk fabrikara (MUN-006/027)

Ahizpa gehienak egon ziren neskame. Eibarrera joan ziren bi izan ezik, hauek lanera sartu baitziren fabrikara. Eskola amaitu eta ardiekin hasi zen bera. Gero, urtebete Berrizen neskame, eta handik Gernikara okindegira.

105. "Elizan sartu" barik ezin kanpora irten ama erditu berria (MUN-006/030)

Zortzi bat egun egin ohi zituen amak ohean umea erdituta gero. Baina gero "elizan sartu" behar izaten zuen umeagaz. Bestela ezin zen kanpora irten.

106. Munitibarrera dantzara (MUN-006/032)

Munitibarrera joaten ziren gaztetan erromeriara. Santa Eufemiara eta inguruko zenbait auzotara ere bai. Munitibarren "Txato"k jotzen zuen soinua eta eurak dantzan aritzen ziren jo eta ke. Eta ilunkeran etxera. Txato soinujolea nor zen.

107. Dantza lotua, bekatu itzela (MUN-006/034)

Dantza soltean eta lotuan, bietan ibiltzen ziren. Lotuan ibiltzea bekatu itzela zen. Abadeek dena jakiten zuten; eta konfesatu ezean ez zegoen jaunartzerik.

108. Mezara joateko komeriak neguan (MUN-006/035)

Bi meza izaten ziren. Bideak lokatzaz beteta egoten ziren eta askotan bustita eta zikinduta heltzen ziren herrira.

109. Gizonak eta andreak nahastu barik elizan (MUN-006/036)

Elizan gizonak atzean eta koruan egoten ziren eta emakumeak, berriz, aulkietan eta aurreko bankuetan. Sepulturan egon behar izaten zuten emakumeek. Lutoa edo horrelako zerbait zutenak aurreko bankuetan.

110. Oizen basoa erretzen eta herritarrak prozesioan (MUN-006/037)

Fraideak "misiñoiak" ematera etortzen ziren, eta aitortzak egitera. Behin gogon du herri osoa prozesioan hilerrira zihoala Oizen basoa ikusten zutela erretzen.

111. Oinaztarriak etxea erre zienekoa (MUN-006/038)

Etxea erretzen zenean, etxe-erre eskean ibiltzen ziren, etxea berriz jasotzeko. Eurek, erre zitzairenean, ez zuten ezer eskatu. Oinaztarriak erre zuen. Ezkaratzeko (sukaldeko) leihotik sartu zen. Egun hartako gertaerak. Abereak ateratzea lortu zuten.

112. Auzoko gizon bat oinaztarriak hil Oizen (MUN-006/039)

Oinaztarriaren kontrako erremedioen berririk ez du. Auzoko artzain bat ere oinaztarriak hil zuen Oizen. Arbolaren ondora hurbildu zen; hori arriskutsua ei da.

113. Kandelario, Erramu eta San Joan egunez egiten ziren erritoak (MUN-006/040)

Trumoi eta zaparrada handiak zirenean kandela isiotzen (pizten) zuten. Kandelario Egunean bedeinkatzen ziren. Erramu Egunez gurutzeak egiten ziren; ereinotzaz ipini eta bedeinkatu egiten ziren. San Juan egunez loreak bedeinkatzen ziren. Lizarra San Joan bezperan ipintzen zen etxeko atean.

114. San Juan sua eta kanta (MUN-006/041)

Aurreko urtean bedeinkatutako lore-sorta erretzen zen san Juan Egunean. "Zapuak eta subiak ondo erre" kantatzen zuten. Kanta errezitatzen du.

115. Gabonetako ospakizunak (MUN-006/043)

Gabon eguneko afaria berezia izaten zen. Gauerdiko mezara jaisten ziren lastazaoz edo farolez argi eginda. Gabon inguruko jakiak. Ogi-koskor sakratuaren usadioa.

116. Gabonetan familia elkartzeko ilusioa (MUN-006/045)

Lehen etxeko denak biltzen ziren Gabonetan. Ilusio handia izaten zuten denak elkartzeko. Ez zen oparirik-eta egiten, asko jota "subatxoak edo", (mazapana).

117. Ipurla baserrikoa zuen ama (MUN-008/002)

Gurasuak lehengusuak ziren: ama, Ipurla baserrikoa (Gerrikaitz) eta aita bertoko baserrikoa.

118. Baserrian beti zegoen lana (MUN-008/004)

Sei senidetan bigarrena da Juan. Aitak noizean behin Aulesti inguruko harrobian lan egiten zuen, eta amak, baserrian beti. Baserrian beti zegoen guztientzat lana. Aiton-amonak eta osaba ere beraiekin bizi ziren.

119. Gurasoak lehengusuak ziren (MUN-008/005)

Garai batean, lehengusuen artean ezkontzea normala zen. Aita umetan Markinatik heldu zen Munitibarrera.

120. Eskola baserri ondoan (MUN-008/006)

Eskola parean zenez, jolastokira ateratzen zen bakoitzean gurasoek baserriko lanetan laguntzeko esaten zioten. Nahiago izaten zuen barruan zigortuta gelditu. Garai baten 200 bat ume izango ziren eskolan. Baserri bakoitzeko 8-10 haur zeuden.

121. Maistra beraien baserrian bizi zen (MUN-008/007)

Maistra bakarra zegoen ume guztientzat. Juanen baserrian bizi ziren eta 2-3 urtetik behin aldatzen zen. Donostiar bat ezik, besteak Espainiatik zetozen eta gaztelaniaz egin behar izaten zuten beraiekin, baina etxean askok ez zekiten.

122. Garai bateko bizimodua (MUN-008/008)

Hamasei bat urterekin eskola utzi behar izaten zen. Juan makilak eta egurrak batzen hasi zen, Markinan zegoen paper-lantegiarentzat. 35 pezeta irabazten zituen eguneko. Irabazitako dirua etxera eramaten zuten.

123. Baserriko lanak (MUN-008/010)

Gaztetan, berandu heltzen baziren etxera, hurrengo egunean goizagi esnarazten zituzten, uda batez ere. Baserrian izaten ziren lanak: garia jo, garia erein, arbia, baratza...

124. Gari-jotzea (MUN-008/011)

Gari-jotzea izaten zenean, auzokoen artean jasotzen zuten baserri bakoitzeko garia. Andramari egunaren inguruan izaten zen. Prozesua nolakoa zen kontatzen du.

125. Garai batean errota pilo bat zeuden (MUN-008/012)

Garia kaxetan sartzen zuten eta gero errotara eramaten zuten. Inguruko errotak aipatzen ditu. Zorroa astoari lotuta joaten ziren errotara. Irin kopuru bat hartzen zuen errotak ordainetan. Astean behin egiten zen ogia.

126. Gari-irina eta arto-irina (MUN-008/013)

Ogia larunbatero egiten zuten. Prozesua nolakoa zen kontatzen du. Arto-irina ere asko jaten zuten, talotan eta morokiletan.

127. Errotek beti ura zeukaten (MUN-008/014)

Gabetan ibiltzen ziren artoak zuritzen eta gero ganbaran gordetzen ziren. Errota berdinean ehotzen zen garia eta artoa. Errotek beti ura zeukaten.

128. Artoaren aprobetxamendua (MUN-008/015)

Artotik dena aprobetxatzen zen. Txondorra, kapatza, arto-bizarra...

129. Tabako-landareak (MUN-008/016)

Tabakoa erein izan zuen aitagin baserrian, baina ez zen ohikoa. Aitak bere kontsumorako ereiten zituen. Orriak lehortu egiten zituen erre aurretik.

130. Emakumearen egoera garai batean (MUN-008/018)

Garai batean emakumeek ez zuten erretzen. Pasioan ibiltzen ziren baina ez ziren tabernetan sartzen. Akaso, etxean edango zuten argo piska bat. Ez zituzten galtzak jutzen.

131. Bederatzi urtez egon zen nobiotan emaztearekin (MUN-008/019)

San Kristobal egunean ezagutu zuen emaztea izango zena. Bederatzi urtez ibili ziren nobiotan ezkondu aurretik. Motorrarekin ibiltzen ziren gora eta behera.

132. Motorra erosi zuen 10.250 pezetatan (MUN-008/020)

Bigarren eskuko Vespa motorra erosi zuen 10.250 pezetatan. Gernikan atera zuen gida-baimena.

133. Bizikleta eta motorra, mutilentzat bakarrik (MUN-008/021)

Urretxuko mutil batek bizikleta zuen eta denek inbidia zioten. Juanen lehenengo bizikleta, osaba batengandik lortu zuten. Gero motorra izan zuen. Emakumeek ez zuten inoiz ez bizikletarik ezta motorrik erabiltzen.

134. Neska-laguntzea; jaietarako oinetakoak (MUN-008/022)

Erromerien ondoren neska-laguntzea nondik egiten zuten kontatzen du. Neskak oinetako zaharrekin joaten ziren erromeriara eta heldu baino lehen, berriagoengatik aldatzen zituzten.

135. Munitibarko erromeria (MUN-008/023)

Munitibarko erromeria nahiko famatua zen. Kotxean ere heltzen ziren batzuk. Dantza lotua eta soltea egiten zen. Kalabaza bat edo beste jaso izan ditu. Neska-laguntzea. Erromerian dantza egiteko ordaindu egiten zen (2-3 pezeta).

136. Erromeriak nonnahi (MUN-008/024)

Herri eta auzo bakoitzean jai ezberdinak izaten ziren: Gerrikaitzen Andramariak, Munitibarren San Pedroak... Erromeriak nonnahi egiten ziren eta bera asko joaten zen: Aulestiara, Ziortzara, Mendatara...

137. Munitibartik Gernikara autobusean (MUN-008/025)

Gernikan erromeriak ezberdinak ziren, kaleko jende asko zegoelako. Abuztuan joaten ziren bertara autobusean Munitibartik. Markinara gutxiago joaten ziren.

138. San Juan bezperako sua (MUN-008/027)

San Juanetan beti Aulestiara joaten ziren erromeriara. Bezperan, su handi bat egiten zen eta kantatu egiten zuten.

139. Garai bateko Gabonak (MUN-008/029)

Gabon Zahar egunean norbaiten etxera joaten ziren, neskak eta mutilak elkarrekin egoteko. Jatekoa ezberdina izaten zen: oilaskoa, konpota...

140. Garai bateko otorduak (MUN-008/030)

Egun normal bateko jatorduan beti zeuden indabak, porru-patatak, gisatua... Arraina noizean behin jaten zuten. Garai batean Lekeitiotik etortzen ziren atuna eta arraina banatzera. Oilaskoak etxean hazten ziren eta gero Gernikako azokan saldu.

141. Gernikako azoka (MUN-008/031)

Gernikako astelehenetako azokan saltzen zituzten baserriko produktuak, oilaskoak... Handik olio, azukrea eta bestelakoak ekartzen zituzten. Garai batean ordain

142. Gariaren zati bat entregatu egiten zen (MUN-008/033)

Baserriaren edo produkzioaren arabera, gariaren parte bat entregatu egin behar izaten zen.

143. Gerrako kontuak, aita espetxean (MUN-008/035)

Gernikako bonbardaketaren egunean, ama ez zen azokara joan. Bi urte zituen Juanek. Aita espetxean egon zen, osabarekin eta auzoko batekin.

144. Gerraostean gosea (MUN-008/036)

Gerraostean gosea egon zen. Estraperloan ibiltzen zen jendea, errotetara gauzez joaten... Juanek ez du goserik pasa baina gauzak jateko aukerarik ere ez.

145. Arrautzak saltzeko ziren, ez jateko (MUN-008/038)

Igandetan garbantzuak edo gisatua jaten zuten. Gaixorik zeudenean, arrautza bat edo beste jaten zuten, baina azokara eramateko izaten ziren.

146. Ardoa tabernatik lortzen zuten (MUN-008/039)

Astean behin, aita lau litro ardo erosten zituen baserriko guztiontzat. Gerrikaitzeko tabernan erosten zuen ardoa. Bi taberna zeuden eta Munitibarren bost inguru.

147. Munitibarko "Sindikatura" (MUN-008/040)

Munitibarko "Sindikatura" tabernaren sorreran bere aita parte hartu zuen. Baserriarren kooperatiba bezala sortu zen, bertan generoa erosteko.

148. Ganaduen kofradia (MUN-008/041)

Ganaduen kofradia zegoen eta auzoka antolatzen ziren. Lanak. Kuotak. Baserrietan geroz eta behi gutxi zeudenez, kofradia itxi zen. Gaur egun aseguruen bidez egiten da.

149. Tigreen beldurrik ez, trumoi eta oinaztarriena bai (MUN-010/003)

1954an joan zen Ameriketara, artzain. Nahi izanez gero, eraikuntzan ere egin zezakeen lan, baina osaba artzainarengana joan zen. Oroitzapen ona du garai hartaz. Trumoi eta oinaztarriekin beldurtzen zen apur bat, baina bestela piztiengatik-eta ez. Ameriketan piztiak ibiltzen ziren arbola gainetan, tigreak-eta (pumak), baina ez diote ezer egiten gizakiari, zaurituta ez badaude behintzat.

150. Amerikar lankidearekin ingeles apur bat ikasi (MUN-010/004)

Amerikar bat izan zuen lankide eta harekin ikasi zuen ingeles apur bat; neska-kontuak erabiltzen zituzten. Irabazi ahala gastatu egiten ei zuen hark, ganorabako itzela ei zen.

151. Janaria nahi beste izaten zuten (MUN-010/007)

Bostak inguruan jaikitzen ziren Idahon. Ardiak mendian behera eraman eta gero lasai norbera. Eguerdian bazkaria prestatzen zuen. Okela nahi beste, bakailaoa ere bai.

152. 1.500 ardiko lau artalde osabaren esku (MUN-010/008)

Osabak lau sail edo artalde zituen AEBn. Uztailaren 4an saltzen ziren lehen bildotsak. Hainbat tandatan saltzen ziren. 1.600 ardi inguru zuen artalde bakoitzak. Ahariak ("toruak") botatzen zieten ardiei bere garaian ernalketarako. Argal-argal geratzen ziren beren langintzaren amaieran.

153. "Candy" txakurra (MUN-010/010)

Txakur fina izan zuen bere denbora guztian, Candy. Txakurrak berez ikasten dute, berezko sena ekartzen dute. Umealdi bakoitzean lau edo bost txakur jaio daitezke, baina ez dira denak berdinak irteten.

154. Koioteak eta tigreak (MUN-010/012)

Koiote asko egoten zen, baina tranperoak harrapatzen zituen txakur eder batzuen laguntzaz. Artzainek ematen zoten jaten tranperoari. Hartzik ('otsue') ez zuen ikusi. Tigreak (puma) asko. Koioteek untxiak eta erbiak jaten dituzte basamortuan.

155. Untxiak harrapatzeko batidak (MUN-010/014)

"Debatiak" (batidak) egiten zituzten makilekin untxiak eta erbiak harrapatzeko eta asko hiltzen zituzten.

156. Boisen funtzionario euskaldunarekin etxean moduan (MUN-010/020)

Behin Boiserara joan zen paper kontu batengatik. Han funtzionario euskaldun batek hartu zuen. Etxean bezala sentitu zen. Gero ere bisitatu izan zuten eta beti ondo hartuak izan ziren.

157. Katagorria, animalia azkarra eta lapurra (MUN-015/001)

Katagorri ("ardillak") ugari ibiltzen da etxe inguruan. Lapurrak ei dira, intxaur guztiak eramaten dituzte. Gozua omen da jateko, baina eurek ez dute sekula jan. Antzina ez ei zen katagorririk.

158. Ogigaztaie (satandera) (MUN-015/002)

Ogigaztaie (satandera) oso gaiztoa da. Bi klase ei daude. Pozoitsua da. Ihes egiten dio gizakiari. Arratoiak harrapatzen dituzte.

159. Erroiak (beleak) eta beste lapur batzuk (MUN-015/004)

Erroiak (beleak) dira hemengo lapurrak. Landetxean ezkaratzeko (sukalde) leihotik eramaten dituzte intxaurrak. Baina hanka biko lapurrak (gizakiak) ere badaude, sagarrak, piperrak eta abar osten dituztenak.

160. Perretxikoak, sagarrak, madariak... hartu eta eroan (MUN-015/006)

Txanpinoi asko egon zen duela bi urte. Kargu hartu zion Mirenek bere lursaillean batzen ari zen gizon bati. Madariak eta sagarrak osten ere harrapatu izan dute jendea.

161. Eskekoak (MUN-015/007)

Lehen eskeko asko ibiltzen zen. "Don Felipe" izenekoari beldur handia zioten. Gero "hungrianak" ibiltzen ziren; Errumaniakoak izango ei ziren. Haiek ere okerrak ziren.

162. "Motxailak", bertako ijitoak (MUN-015/008)

Ijitoak zaldi-gurdietan ibiltzen ziren. Asko osten zuten. Behin oiloa harrapatu zieten. Orain ijitoak txatarrero bihurtu dira. Formalak ei dira. "Motxailak" deitzen zaie bertako ijitoei, ijito euskaldunei. Auto zaharra ere motxaila batek erosi zion. "Jittanuak" kanpotik etorritakoak dira.

163. Hemengo behi arraza berezia ijitoek gorde dute (MUN-015/009)

Bertako ijito ezagun batzuk urtero eramaten zituzten behiak Gasteizko feriara. Antzinako behi arraza berezia eurei eskerrak gorde da. Jatorrak ei dira.

164. Karobiak (MUN-015/011)

Karea egiten zen. Etxetik hurbil dago karobi-zuloa. Etxeko hondakinak karobian erretzen zituzten lehenago. Kareharriz egiten zen karea. Sororako erabiltzen zen. Ona da lurrarentzat.

165. Aranak hazten ziren karobi inguruan (MUN-015/014)

Karobiaren bueltan aranak egoten ziren. Gustura jaten zituzten. Patxarana egiteko erabiltzen dira.

166. Freskerak, orduko hozgailuak (MUN-015/016)

Hozgailurik ez zen orduan, baina bai "freskerak" aberatsen etxeetan. Legatzak pare bat egun irauten zuen. Antxoak eta palometak (papardoak) jaten ei ziren gehienbat baserrietan. Oiz mendian baziren neberak (elurzuloak).

167. Peru eta Marixe ipuinen protagonista (MUN-015/018)

Txikitan ipuin asko entzundakoa da Miren artoa zuritzen zuten bitartean. Ahaztuta ditu. Peru eta Marixe izaten ziren protagonistak.

168. Abendu-kantak eta Urteberri eta Erregenetakoak (MUN-015/020)

"Abendu katetan" ibilitakoa da Jesus. Ilara biko soinua jotzen zuen. Gari-joteetan-eta jotzen zuen. Abendu kantaren hasiera.

169. Maritxu 13 urte zituenetik neskame lanetan (MUN-016/005)

Etxean hainbeste izanda, lan egin behar izan zuten gazte-gaztetatik. Maritxu 13 urterekin neskame joan zen, umeak zaintzera. Neskame lanetan aritu zen etxean apaizak, maisuak, maistrak... hartzen omen zituzten, apopilo. Jornalik ez zuen ikusten berak, etxeko jabea amarekin konponduko zelakoan dago. Ondoren, han eta hemen ibili zen neskame lanetan.

170. Elizpeko eskolara (MUN-016/006)

Eskolara ez joatearren itaurrean ere ibiltzen omen ziren. Hirurak eskola berean ibili ziren, eliza azpian zegoen nesken eskola Munitibarren. Mutilen eskola, osterara, udaletxea zegoen lekuan zegoen. Errekreoan, eskailerak gorotzez beteta egoten zirenez, eskailerak garbitzen egon behar izaten zuten.

171. Julia Mendiolar neskame gisa (MUN-016/007)

Julia Mendiolan egon zen neskame gisa denboraldi batez.

172. Bataioak (MUN-016/009)

Bataioetan familia elkartu eta haurra bataiatu ostean, eliza ondoan tabernarik egonez gero, kafesne bat hartu edo zerbait jateko aprobetxatzen zuten. Haurrari amabitxiak edo aitabitxiak jartzen zion izena. Etxean ere bataiatu ohi ziren haurrak, zerbait pasatuz gero bataiatuta egon zedin.

173. Hiletak (MUN-016/010)

Lehenengo, bigarren eta hirugarren klaseko hiletak izaten ziren orduan. Sepulturak egoten ziren elizan, kandlekin, eta dirua batzeko otartxo batekin. Apaizak meza amaitu ostean, Pater Noster errezatzen zuen sepultura aurrean. Gertukoren bat hiltzen zenean, lutoa egin ohi zuten, mantila luzeak janzten zituzten lehen, gerora arropa beltzak janztearekin nahikoa izaten zen.

174. Kanpaikada desberdinak hildakoa nor zenaren arabera (MUN-016/011)

Luto garaian ezin izaten zuten dantzarik egin. Kanpaien bitartez jakiten zuten herrian norbait hil zela. Betiko kanpaikadez gain, hil zena gizonezkoa bazen hiru kanpaikada gehiago entzuten ziren, emakumezkoa bazen hildakoa, bi gehiago, eta haurra izanez gero, txilina jotzen zuten. Gauean gaubela izaten zen, jendea hildakoaren etxera gerturatzen zen arrosarioa errezatzera, hori ere amaitu zen, arrosarioa errezatu baino, txutxu-mutxuka aritzen zelako jendea. Hileta egunean, familiakoak bazkaltzera joan ohi ziren elizkizunaren ostean. Gorpua kanposantura eramán aurretik, elizara eramaten zuten.

175. Jaunartzea (MUN-016/012)

Jaunartzea sei eta zazpi urterekin egin zuten. Jaunartzea egin baino bi hilabete lehenago, dotrina ikasi behar izaten zuten sakristian, neskak eta mutilak elkarrekin. Jaunartzeko arropak herriko jostun batek neurrira egin zizkien.

176. Ezkontzak (MUN-016/013)

Gehienak beltzez ezkontzen ei ziren orduan. Julia ere beltzez ezkondu zen, Maritxu zuriz, eta Angelita lilaz. Ezkondu eta ospakizunak izaten ziren orduan ere, gerora sindikatua jarri zuten lekuan ospatu zuten ezkontza, eta bidaiatxoá ere egin zuten, Bilbora, Gernikara, eta baita Madrilera ere.

177. Uztarria, nabasia eta goldea (MUN-016/015)

Paretan zintzilik dauden lan tresnei buruz dabilta, uztarria eta nabasia zertarako erabiltzen ziren azaltzen dute. Goldea ere bazuten baserrian, lurra lantzeko.

178. Auzolanean lurra laiatzen (MUN-016/016)

Auzolanean egiten zuten lan asko, lurra laiatzen, eta abar. Angelitak inoiz ez zuen lurra laiatu, beste biak bai. Gari-jotzean ere elkarri laguntzen zieten kofradia denek. Uda nahiz negu, berdín egin behar izaten zen lana baserrian.

179. Jolasean, kubika eta marraka (MUN-016/017)

Lan asko egon arren baserrian, jolaserako tarteak ere hartzen zituzten, kubika eta marraka aritzen ziren askotan.

180. Aponekin eta sokadantzan (MUN-016/019)

Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten errekreo garaian. Aponekin jolasten zuten batzuetan, sokadantzan besteetan. Zuhaitzen sustrai edo adar malguekin aritzen ziren sokadantzan, kantuan eta saltoka. Sokadantzako abesti bat abesten dute, gazteleraz, eta aponekin nola jolasten zuten ere azaltzen dute. Bildotsak hiltzeko desiratzen egoten ziren, aponak hartzeko, margotu ere egiten zituzten aponak. Pilotan ez ziren aritzen, mutilak gehiago.

181. "El elefante" komuneko papera (MUN-016/020)

Komunik ez zegoen garaian, sabaian eserita egon ahal izateko egituraren bat prestatzen zuten egurrekin, eta bertan egiten zituzten egin beharrekoak, dena kortara erortzen zelarik. Ipurdia garbitzeko, belar lehorrak edo egunkari zatiak erabiltzen zituzten. "El elefante" komuneko papera geroko kontua izan zen.

182. Menda belarrak izaretan (MUN-016/021)

Igandeetan garbitzen zuten euren burua, galdarak ipintzen zituzten inguruan, eta haiekin busti eta garbitzen ziren. Sutaitsa ere erabili izan zuten, arropak garbitzeko. Menda belarrak eta bestelakoak erabili izan zituzten izara artean sartzeko, ondo usain zezaten izarek. Zorriak zirela-eta, ez omen zuten zorri askorik izaten.

183. Etxeko garbitasuna (MUN-016/023)

Astean behin garbiketa orokorra egiten zuten etxean, sukaldea-eta egunero garbitzen zen. Sukaldeko lurra porlanezkoa izaten zen normalean. Izarak garbitzeko, aurreko egunetik beratzen jarri behar izaten ziren, ur berotan.

184. Maisu eta maistra gaiztoak (MUN-019/001)

Eskolan zigortu egiten zituzten euskaraz hitz egiteagatik. Ez zuten gaztelaniaz ulertzen eta bertan ikasi zuten piska bat.

185. Baserriaren izenaz ezagutzen dute (MUN-019/003)

"Arzabala" da Manuelen ezizena, baserriaren izena.

186. Munitibarren bonbardaketa (MUN-019/007)

Gernika bonbardatu zuten egunean, leihotik ikusi zituen bonbak erortzen. Munitibar ere bonbardatu zuten.

187. Berrogeita zortzi urte ezkontuta (MUN-019/008)

Eskolan Munitibarren ibili zen eta gero ikatzean lanean hasi zenean, gau-eskolak hartzen zituen. Soldaduzka egin eta Ameriketara joan zen lanera. Bertan zazpi urtez egon zen eta bueltan ezkontu zen Eugeniarekin. 48 urte daramatzate ezkontuta. Garai batean behi asko zituzten baserrian.

188. Montezuri baserrian adoptatu zuten (MUN-019/010)

Montezuri baserrikoek adoptatu zuten Eugenia. Ez ditu bere guraso biologikoak ezagutzen. Bederatzi senidetatik laugarrena da, haietatik beste bi adoptatuak ere. Gobernuak laguntzak ematen zituen.

189. Igandero dotrinara (MUN-019/012)

Umetan Totorikan jolasten zuten eta bertan pasatzen zuten denbora. Igandetara dotrinara joan behar izaten zuten. Garai bateko eta gaur egungo bizimoduaren ezberdintasunak.

190. Euskaraz egiteagatik bi pezetako zigorra (MUN-019/015)

Abadearekin euskaraz hitz egiten zuten baina eskolan ez. Euskaraz hitz bat esateagatik, maistrak bi pezetako zigorra jarri zion.

191. Eskolako kontuak (MUN-019/017)

Oinarrizko matematikak ikasi zituzten eskolan. Gerora gehiago ikasi dute. Entziklopedia batetik ikasten zuten guztia. Etxean inork ezin zien lagundu, ez zekitelako gaztelaniaz. Euskara batua iloba txikiarekin ikasi du.

192. Hau asko zeuden Totorikan (MUN-019/019)

Jolasetarako denbora handirik ez zuten izaten. Eugenia 15 urterekin joan zen neskame. Auzoan haur asko zeuden.

193. Jolasteko denborarik ez (MUN-019/020)

Pelotan jolasten zuten eta pelota trapu zaharrekin egiten zituzten. Panpinak ere trapuekin egiten zituzten. Jolasteko denbora handirik ez zuten izaten. Askotan ez ziren eskolara joaten baserrian lan egiteko.

194. 1943an heldu zen ur korrontea (MUN-019/021)

Gerraostea izan zen sasoirik txarrena. Ura 1943an heldu zen auzora. Kostu handiko proiektua izan zen, baina beharrezkoa.

195. Herriko okina (MUN-019/023)

Herriko okinak, ogia egin eta banatzen ditu. Eibarko Txaltxa jatetxeko ogia ere egiten du. Gaueko ordubatatetan esnatzen da lan egiteko. Etxez-etxe ogia eta egunkaria banatzen ditu.

196. Bizikleta Markinan alokatzen zuen (MUN-019/025)

Jose Manuelek ez du inoiz bizikletarik izan eta soldaduskan zegoenean, batzuetan Markinan alokaten zuen bat etxera heltzeko. Ez zeukaten dirurik bizikleta erosteko.

197. Ameriketari (Elkon) artzain (MUN-019/026)

Soldaduska egin ondoren, lan falta zela eta, Ameriketara joan zen. Hiru urte eta erdi bertan egin, bisitan etorri eta Eugeniarekin hasi zen nobiotan. Artzain bezala ibili zen Elkon. 1992an erretiratu zenean, Eugeniarekin batera joan zen bertara eta hilabete t'erdiz ibili ziren han. Urte batzuk geroago berriz itzuli ziren oportetean. Ez da bizitzeko leku aproposa. Euskaldun ugari zegoen Elkon.

198. Elkon euskaldun asko zeuden (MUN-019/028)

Elkon 200 bat artzain euskaldun baino gehiago zeuden Jose Manunel lanean egon zen garaian. Gizaburuaga "Parrillas" izeneko artzaina agertzen zen Amerikanuak filman.

199. Ameriketatik bueltatu eta baserria erosi (MUN-019/029)

Ameriketari artzain egonda dirua irabazten zen. Hiru urte t'erdian, 400.000 pezetako baserri bat erosteko lain diru irabazi zuen Jose Manuelek. Garai batean, dolarretatik pezetetara aldaketa egitean lortzen zen diru gehien eta gainera, ez zuten gasturik izaten. Arrantzarako kupoak zeuden.

200. Kanperu izan zen Elko inguruan (MUN-019/030)

Kanperu bezala ibili zen Jose Manuel. Lana nolakoa zen kontatzen du. Ogia egitea ez zen erraza. Zaldian denbora asko eramaten zuen, artzainei ogia, ardoa eta bestelakoak eramaten. Okela ez zien eramaten, artzainek bildotsa hiltzen zutelako. Udako eta neguko lanak. Ura eramane beharra.

201. Kanpero eta artzain bizimodu tristea (MUN-019/031)

Artzainak ardiekin joaten zirenean, Jose Manuel janaria egiten gelditzen zen, ur bila joaten zen... Artzainak bueltatzen zirenean, jan eta gero jokoan egiten zuten. Egunak luzeak ziren. Ingelez piska bat ikasi zuen ugazabarekin semearekin.

202. Txakurra, artzainaren laguna (MUN-019/033)

Txakurrekin ibiltzen ziren Ameriketara. Negu batean 19 izan zituen Jose Manuelek. Artzain bakoitzak txakur bat izaten zuen eta kumeak izaten zituzten. Ardi-txakurrek berezko zerbait dute ardiak zaintzeko.

203. Saiak eta arranoak bildotsen bila (MUN-019/034)

Saiak eta arranoak, bildotsak harrapatzen saiatzen ziren.

204. Koioteak eta basa-katuak Ameriketara (MUN-019/036)

Ameriketara ardiekin lanean ari zela koioteak eta basa-katuak ziren pizti arriskutsuenak. Hartzik ez zegoen Nevadan.

205. Neskamea izanda, erizain lanak egiten (MUN-019/037)

Hamabost urterekin neskame bezala joan zen Eugenia Lekeitioko mediku baten etxera. Etxeko lanetaz arduratzeaz gain, medikuari ere laguntzen zion erizain lanetan. Soldata. Baserrian laguntza behar zutelako utzi zuen lana.

206. Emperatriz hotelean lanean (MUN-019/038)

Udan, Emperatriz hotelean lan egiten zuen. Lan asko zegoen baina ondo irabazten zuen. Bezero batek eskatu zien egunero bere txoriari jaten emateko eta garbitzeko. Hotela utzi zuenean, 900 pezetako eskupekoa eman zien. Beste bezero baten txakurra ere zaindu behar izan zuten.

207. Baserriko bizimodua gogorra zen (MUN-019/039)

Irabazitako diru guztia baserrira eraman behar izaten zuten. Baserriko bizimodua tristea eta gogorra zen.

208. Baserria berrizteko lanak (MUN-019/041)

Behiak erosi zituztenean, kortatik kanpo ibiltzen ziren. Erretiratu zirenean, baserria konpondu zuten: kalefakzioa jarri, komunak egin, logelak aldatu... Garai batean behiak etxetik ibiltzen ziren.

209. "Dolarren bila" Ameriketara (MUN-040/004)

Bost osaba joan ziren Ameriketara, amaren anaia guztiak. Javier joan orduko itzuliak ziren handik. Osaba batek esan zion Ameriketara lana zegoela eta Euskal Herriko egoera eskasa zela eta, 1984an joatea erabaki zuen, "dolarren bila". Beharrezko guztia eman zioten: pasaporte, paperak... Bilbotik Madrilera, handik Denverre eta gero Boiserara egin zuen bidaia. Aireportura harrera egitera joan zitzaizkien itzultzaileekin (Espe eta Henry Alegria). Espek irratsaio bat egiten zuen euskaraz.

210. Kanpero lanetan (MUN-040/005)

Wilson konpañiara joan zen, Hammett herrira (Idaho). Kanpero lanetan jardun zuen, artzainei laguntzen. Denak euskaldunak ziren, bizkaitarrak

gehienak. Mendian bi gizonak elkarrekin bizi behar zuten eta garrantzitsua zen ondo konpontzea. Denbora-pasarako tarte askorik ez zen izaten. Egunero joaten zitzaien "mayordomoa" edo "trokeroa" (kamioi gidaria) elikagaiak eramatera. Ardi guztiei ura eman behar zitzaien egunero. Gero hiru gizonak Javierrek prestatutakoa elkarrekin bazkaltzen zuten. Babarrunak zakueta edukitzen zituzten, barazkiak latetan. Ogia egiten ere ikasi zuen. Nola egiten zuen azaltzen du.

211. Ureztatzaile lanak (MUN-040/006)

Ez zen askorik joan ardiekin mendira. Bigarren urtean arrantxoan geratu zen lanean. Ureztatze lanak egiten zituen. Orain automatiko egiten da baina orduan egunero hiru ureztatzaile behar ziren. Bost gizon egoten ziren arrantxoan lanean. Julio Zabalaren emazteak, Maria Luisak, egiten zituen etxeko lanak. Langile bakoitzak bere etxea zeukan lotarako.

212. Jai egunetan egiten zutena (MUN-040/007)

Larunbatetan egun librea izaten zuten. Hala ere artzain asko ez ziren arrantxotik mugitzen. Bera Mountain Home-ra edo Boisera joaten zen. Dantzak egoten ziren eta beste euskaldun batzuekin egoten zen. Batzuek bildotsak saldu ondoren pare bat hilabete ematen zituzten hotelean, eta urtarrilean berriro itzultzen ziren ardiekin.

213. Artzain batzuk irabazitakoa gastatu ere bai (MUN-040/009)

Jai egunetan Mountain Home-ra edo Boisera joaten ziren eta batzuek mozkortu eta liskarrak izaten zituzten. Javierren osabak Ameriketara joan zirenean 200 dolar eguneko irabazten zituzten eta janaria eta arropa merke zeuden. Artzainek dirua egiten zuten orduan, baina batzuek baita gastatu ere, tabernan edo emakumeekin.

214. Euskaldunen hotelak artzainez beteta (MUN-040/010)

Euskaldunen hotelak zeuden eta artzainak izaten ziren bezeroak. Hoteletan debekatuta zegoen emakumeak sartzea. Bera Ameriketara joan zenean dena ardiz beteta zegoen; orain, aldiz, dena behiak dira. Euskal artzainek ospe ona zuten.

215. Azken euskal artzainak (MUN-040/012)

Gaur egun ez da joaten artzainik Ameriketara; bere garaian joan ziren azkenetarikoak. 700 dolar ordaintzen zieten hilean. Urte osoa mendian ardiak zaintzen egonda aurreztu egiten zuten. Mediku-asegurua konpainiak ordaintzen zuen. Gaur egun norberak ordaindu behar du.

216. Gaur egun ardien ordeztu behiak (MUN-040/013)

Gaur egun Wilson arrantxoan bost mutil dabilta lanean, behiekin. Alpapa, artoa eta garia dauzkate, baina dena esne-behiak elikatzeko erabiltzen dute. Sobratzen dena saldu egiten dute. Erosleak haragi-behiak ikusi eta eroatera arrantxora joaten dira.

217. Artzain batzuk 20 urtez Ameriketara (MUN-040/017)

Artzain batzuk 20 urte eman zituzten han lanean. Erretiratutakoan batzuk Euskal Herrira bueltatu ziren, baina asko bertan hil ere bai. Askok ez zeukaten hilkutxa ordaintzeko dirurik ere, eta bertako familiek laguntzen zuten hileta antolatzen.

218. Euskal Herriko andregaiarekin bueltatu (MUN-040/018)

Garai batean artzain asko zeuden Ameriketara. Askotan emazteak ere arrantxoan lan egiten zuen, etxeko lanetan. Batzuek Euskal Herrian topatzen zuten andregai eta gero Estatu Batuetara elkarrekin itzuli. Ezkondu, etxea erosi eta herrian topatzen zuten beste lan bat, ardiena utziz. Baina askotan bikote arazoak ere izaten ziren.

219. Artzainen emazteentzat bizimodu zaila (MUN-040/019)

Artzain euskaldunekin Ameriketara joan ziren emakumeentzat ez zen bizimodu erraza. Hizkuntza ez zuten ezagutzen; edonora joateko kotxea behar zen; umeak... Sasoi hartan gidabaimena azterketarik egin gabe ematen zuten. Berari horrelaxe eman zion polizia buruak, Javierren ugazaba ezaguna zuelako.

220. Behiekin egiten diren lanak (MUN-040/021)

Behiek jaten dutena sikua denez, ura eskura eduki behar dute beti. Lursailak gobernuarenak dira eta errenta ordaindu behar izaten dute. Sailez aldatzen joaten dira eta neguan etxera ekartzen dituzte.

221. Bertsolariak eta dantzariak (MUN-040/023)

Bertsolaritza gustatzen zaio. Mountain Home-n egon ziren pare bat bertsolari. Boisen badaude euskal dantza taldeak, Mountain Home-n dagoeneko ez. "Pikinikia" (picnic) lehen euskaldunetz beteta egoten zen, gaur egun oso gutxi dira euskaldunak. Asko aldatu da.

222. Euskalduna ala amerikarra? (MUN-040/024)

Denborarekin bertakoa bihurtzen zara eta urteak pasa ahala gero eta zailagoa da Euskal Herrira itzultzea.

223. Antorrene baserria (MUN-041/002)

Antorrene baserrian jaio zen Tomas. "Anton Torre"k egin zuen baserria eta handik dator izena. Baserria bitan banatuta zegoen eta guztira 14 pertsona bizi ziren. Aitonak 16 seme-alaba izan zituen.

224. Aitonak eraman zuen ur-korrontea auzora (MUN-041/004)

Aitonak ura auzora eramateko kanalizazio bat eta depositu bat egin zituen. Arroga garbitzeko eskuzko garbigailu bat zuten, baina errekan ere garbitzen zen.

225. Umetatik baserriko lanak egiten (MUN-041/005)

Zortzi urterekin behiak zaintzen ibiltzen ziren eta garia ere jotzen zuten.

226. Gari-jotzea auzolanean egiten zen (MUN-041/006)

Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Lanak.

227. Ogia etxean egiten zen (MUN-041/007)

Munitibarren sei errota daude. Etxe aurrean zuten labea eta bertan egiten zuten ogia.

228. Aita artzain ibili zen Ameriketara (MUN-041/009)

Aita Idahon ibili zen artzain lanetan, baserriak ez zuelako nahikoa ematen guztientzat. 10.000 ardi zituen bere kargu eta astean behin ikusten zuen beste pertsona bat. Bigarren semea jaio zenean joan zen Ameriketara. Urte bete ta piku bakarrik iraun zuen bertan.

229. Artoa eta kapatzak (MUN-041/011)

Garia eta artoa ereiten zuten. Errotak galtzen joan zirenean, artoa ereiten jarraitzen zen animaliei jaten emateko. Kapatzak kentzen ibiltzen ziren eta errosarioa errezatzen zen. Kapatzak animaliei ematen zitzairen.

230. Tabakoa ereiten (MUN-041/012)

Batzuek arto-bizarrak zigarroak egiteko erabiltzen zituzten. Pare bat urtetan tabakoa erein zuten baina ez ziren ondo lehortzen ganbaran.

231. Tomateentzako eta patatentzako botikak (MUN-041/014)

Gaur egun baratzean kobre-sulfatoa erabiltzen da eta kontuz ibili behar da. Garai batean, ama gogoratzen du baratzean botika botatzen inolako segurtasunik gabe.

232. 1987ko neguan hotz handia egin zuen (MUN-041/015)

Garai batean elur eta hotz gehiago egiten zuen. 1987an, hamar egunez egon ziren 10 gradu zero azpitik eta elurretan. Txapa ezin piztu ibili ziren. Land Roverrean joaten zen lanera Tomas.

233. Okelarako behiak (MUN-041/016)

Okelarako behiak ditu. Batzuek ez dute kortan egon nahi eta kanpoan daude beti. Pare bat txahal galdu dituzte azken urteetan.

234. Baserritarren arteko ermandadeak (MUN-041/017)

Auzokoen artean ermandadeak sortzen ziren eta norbaiti baserria erre edo txahal bat hiltzen bazitzaion, gainontzeko auzokoek diruz edo eskulanez laguntzen zuten. Urteekin galdu egin zen praktika hau.

235. Patata sartzeko makina bat asmatu zuen (MUN-041/019)

Tomasek makinak erosi zituen eta horrekin jasotzen du belarra Patata ereiteko tresna bat asmatu zuen.

236. Baratzea eta negutegia (MUN-041/020)

Simaurrea erabiltzen da baina trazabilitate-kontuak direla eta, ezin da saldu. Baratzean erabiltzen du eta negutegia dauka. Bildotsek arbia jaten dute, soilik eskegita ikusten badituzte.

237. Karea lurra lehortzeko; karobiak (MUN-041/023)

Belarra lehortzeko karea erabiltzen zen. Karobiak Aulestian.

238. Ardoaren eta arrainaren ibilbidea (MUN-041/024)

Elurtegia baserritik gertu zuten, ardoaren eta arrainaren ibilbidea bertatik igarotzen zelako. Arraina gordetzeko erabiltzen ziren eta elurra botatzen zen barrura.

239. Munitibar eta Gerrikaitz (MUN-041/025)

1363. urtean, Gautegiz-Arteagako jaunak eman zion Munitibarri herri izaera, Gerrikaitz izeneko lurretan. Arbatzegi auzoa. Elizak.

240. Munitibar uriaren sorrera (MUN-041/026)

Munitibar uriaren sorreraren nondik norakoak kontatzen ditu. Burdindola ugari egon ziren zonaldean. Gerrikaitz auzoa.

241. Hilerriak eraikitzea, Napoleonen ideia (MUN-041/027)

Bi parrokia eta bi hilerri zeuden gaur egun ezagutzen den Munitibarko udalerriaren barruan. Garai batean hildakoen gorpuak eliza barruan enterratzen ziren eta Napoleon izan zen hori galarazi zuena. Orduan sortu ziren hilerriak.

242. Anda-bideak (MUN-041/029)

Garai batean edozein pasa zitekeen anda-bideetatik. Galdu egin ziren inork ez zituelako mantentzen eta garbitzen. Aitak txahala eramaten zuen Munitibartik Durangora, anda-bidetik.

243. Ekaitzak jo eta txorixo eginberriak galdu (MUN-041/030)

Baserriko behiak harakinak hiltzen ditu pistolaz. Txerriak aitonak hiltzen zituen labanaz. Urte batean txerria hil eta ekaitza egon zenez, txorixo guztiak galdu egin ziren.

244. Ilargiari begira baserriko lanak egiteko (MUN-041/031)

Ilargiari begiratzen zitzaion baserriko lanak egiteko.

245. Hilerokoarekin txerriarengana ezin hurbildu (MUN-041/032)

Emakumezkoak hilerokoarekin zeudenean ezin ziren txerriarengana hurbildu. Garai batean emakumearen rola oso markatuta zegoen eta gizonezkoek ez zituzten etxeko lanak egiten.

246. Herri txikietan zinegotzia izatearen garrantzia (MUN-042/002)

Munitibarko alkatea (1987) izan da eta baita zinegotzia ere. Herri txikietan, pertsona guztiak bizitzan behin zinegotzia izatea oso garrantzitsua da.

247. Alkate bezala egindako ekimenak (MUN-042/004)

Alkate zela izan zituen pare bat anekdota kontatzen ditu. Hauteskunde batzuetan bozka euskaraz egingo zutela erabaki zuten, nahiz eta legala ez izan. Beste behin, protestak egon ziren Munitibarko lurretan ETBko antena bat jartzeko. Bertan daude telebista-kate ezberdinetako antena guztiak.

248. Munitibarren lur publiko asko (MUN-042/005)

Munitibarko lurrak ia denak publikoak dira eta Udalak gehiago erosten ditu, jendeak lur horrekin ez espelkultzeko. Gero, erabilera libre da (adibidez ardiak edo behian sartzeko), baina jabegoa Udalarena da.

249. Oizko hegazkinaren istripua (MUN-042/007)

Oizen eroritako hegazkinak, Munitibarreko lurretan dagoen antena bat jo zuen. Orduan Udalean nor zegoen kontatzen du eta baita epaitegian izan zituzten arazoak.

250. Lea Ibarreko industrialdea, Gizaburuagan (MUN-042/008)

Industriarik ez dago Munitibarren. Lea Ibarreko Mankomunitatea sortu zenean, industrialde bakarra eraikiko zela eta dirua bost herrien artean banatuko zela adostu zen. Gizaburuagan eraiki zuten. Prozesua.

251. Munitibarko herriko taberna (MUN-042/011)

Munitibarko herriko taberna Udalarena izan da. Urte askotan itxita egon zen eta gero ez du benetako jarraipenik egon. Inguruko herri guztietan berdina gertatu da.

252. Lea Ibarreko garraioa (MUN-042/012)

Bizkaibusa ez zenean bailarara heltzen Aldundiak esan zien gidaria topatu ezkerro, autobusa ipiniko zutela haiek. Azkenean autobus txiki bat ipini zuten eta ikasleek erabiltzen zuten gehienbat, Gernikara heldu ahal izateko. Gero, Bizkaibusa sartu zen.

253. Lea Ibarreko Mankomunitatearen ekimenak (MUN-042/013)

Hasieran, Lea Artibaiko mankomunitatea sortzea pentsatu zen (Lea Ibarrekoa baino), baina herri txiki eta handien arteko ezberdintasuna oso handia zen. Etxez-etxeko laguntzaren auzia kontatzen du.

254. Lea Ibarreko zaborren kudeaketa (MUN-042/014)

Zaborren biulketa Lea Ibarreko Mankomunitatearen bidez kudeatzen da. Kamioi zahar bat eman zien Aldundiak eta mankomunitateak gidaria ipini zuen. Hasieran, karobi batera botatzen zen zaborra eta gero, errauztegi bat egin zuten. Gaur egun, Milloin batu eta Bilbo ingugura eramaten dira zaborrak.

255. Aguazilaren eta peoiaren figura (MUN-042/015)

Lea Ibarreko herrien artean, Aulestian bakarrik egon da aguazila. Gainontzeko herrietan "peoia"ren irudia dago. Garai bateko aguazila gogoratzen du.

256. Munitibarko ferratokia (MUN-042/016)

Munitibarko ferratokia frontoiaren atzeko aldean zegoen, Pedro Mari Larraondoren etxean. Geroago al baitariak egiten zuen.

257. Garai bateko mediku mozkorra (MUN-042/017)

Udaletxe zaharraren goiko aldean medikuaren etxea zegoen. Gaztea zelarik, anai bat zauritu egin zen eta medikua mozkortuta zegoela gogoratzen du. Medikuek horrek postua utzi zuenean, etxea simaurrez beteta topatu zuten.

258. Medikuek bakarrik bost herrientzat (MUN-042/018)

Koronabirusaren pandemiaren aurretik, egunero zegoen medikua Munitibarren. Pandemiaren ostetik, medikuek bakarrik dago Lea Ibarreko bost herrientzat. Osakidetzak aurretik bazekien medikuek hura jubilatuko zela.

259. Genero berdintasuna Udalean (MUN-042/021)

Munitibarko Udalean emakumezkoen presentzia altua izan da. Bere aurretik egon zen alkatea emakumezkoa zen eta Lea Artibaiko alkate asko bezala.

260. Militantzian denbora asko (MUN-042/023)

Alkate egon zen denboran sortu zen UEMA. Garai hartan bilera askotara joan behar izaten zen eta etxean gutxi egoten zen. Lea Ibarreko Mankomunazgoko lehendakaria izan zenean 30 euro kobratzen zituen hilero. Emaztearekin denbora gehiago ez pasatzeakin damu da, baina egindako lanarekin pozik dago.

261. UEMAren sorrera (MUN-042/025)

UEMAren sorreran parte hartu zuen Munitibarko. Herri txiki ugari sartu ziren hasiera batean. EAJko gobernuek ez zuten hasieran oso argi ikusten proiektua.

262. Udalbiltza: sorrera, arazoak... (MUN-042/026)

Udalbiltzaren sorreran ekintza politikoa izan zen. Filosofia era prozesua zein izan zen kontatzen du. Kide batzuk espetxean bukatu zuten. Mehatxu eskutitzak jaso zituen Tomasek. Behin kaxa bat jaso zuten eta zabaltzeko beldurra izan zuten.

263. 44 urtez lantegi berean lanean (MUN-042/028)

Matienako fabrika batean lan egin du 44 urtez. 16 ureterekin hasi zen bertan lanean. Hasierako urteetan lanera joatea zailagoa zen baina gero bide berriarekin hobeto joaten zen. Izotzarekin gidatzea arriskutsua da.

264. Oizko San Kristobaleko jaietara nola igo (MUN-042/033)

Garai bateko San Kristobal jaiak nolakoak ziren kontatzen du Tomasek: edariak nondik eramaten ziren, zein bide erabiltzen ziren...

265. Garai bateko erromeriak itzelak ziren (MUN-042/034)

Garai bateko erromerietan oso ondo pasatzen zuten eta dantza asko egiten zuten. Hurrengo egunean lanera joan behar ziren. Neska-laguntzen Munitibartik Gizaburuagararte.

266. Munitibar eta Gasteiz artean (MUN-043/003)

Munitibarko Bastarreku etxekoa da. Hamalau urterekin Gasteizera eraman zuten ikasketak amaitzera. Majisteritza Bilbon egin zuen. Aiton-amonak Munitibarkoak zituen eta Izubietako bat izan ezik.

267. Aita galdu zuen sei urterekin (MUN-043/004)

Aita zen Bastarreku etxekoa. 35 urterekin hil zen apendizitis batengaitik. Aitaren gurasoak eta aitaren bi osaba bizi ziren haiekin etxean. Baserritik bizi ziren. Garai batean normalean emakume alargunek ez ziren berriz ezkontzen, baina gizonezko alargunak bai.

268. Zazpi urterekin eskolara Markinara (MUN-043/005)

Ume garaiko Munitibar ez zegoen asfaltatuta. Plazan jolasten zuten. Baserrian lagundu behar izaten zuten. Munitibarko eskolan ibili zen zazpi urtera arte eta kurtso erdian Markinara eraman zituzten inguruko herri txikietako haur denak. Autobusean joaten ziren.

269. Munitibarko eskolan "Cara al Sol" (MUN-043/006)

Munitibarko eskolan gaztelaniaz ikasten zuten. Maistra Aulestikoa bazen ere, bere senarra udaletxeko idazkaria zen, erregimenaren aldekoa. Eskolan "Cara al Sol" abesten zuten eta banderari mun eman behar zioten. Doña Lutxi zen bere maistra.

270. Markinako eskolan inguruetako haurrak (MUN-043/007)

Herritik eta basoetatik zehar jolasten zuten, inolako kontrolik gabe. Markinara eskolara eraman zituzten, gaur egungo Bekobenta eskola dagoen lekura. Inguruko herri txiki guztietako haurrak joaten ziren bertara: Munitibar, Aulesti, Etxebarri, Ziortza-Bolibar... Neskak eta mutilak elkarrekin zeuden eta 6. mailatik aurrera irakasle gazteagoak izaten hasi ziren. Liburuak erabiltzen zituzten.

271. Gasteizen "La Vasca" deitzen zioten (MUN-043/008)

Herri euskaldun batetik Gasteizera ikastera joatea oso gogorra izan zen. Lekuz kanpo sentitzen zen eta ulertzen du gaur egungo ume etorkinen egoera, berak antzerako zerbait bizi izan zuelako. " La Vasca" deitzen zioten Ursulinen mojen eskolan.

272. Gasteizen, beste "habitat" batean zegoen (MUN-043/010)

Gasteizko Ursulinetan uniformeak eramaten zen, nahiz eta berak askotan kalez jantzita joaten zen. Nahiz eta gaztelaniaz bazekien, bertako gainontzeko neskak eta bera oso ezberdinak ziren. Ez zen bere "habitatean" sentitzean. Asteburuetan Munitibarrera bueltatzen zen. Gasteizen ez zuen lagun handirik egin. Bilbon ikasi zuen majisteritza eta orduan bere lekua aurkitu zuen.

273. Ursulinetako irakasleak (MUN-043/011)

Ez du gogoratzen bekarik eskatu zuenik bere amak, alabak mojetan ikasteko. Gasteizko Ursulinetan mojak, fraide bat eta elizaz kanpoko irakasleak literatura ematen zuen eta oso irakasle ona zen. Martin irakaslea gogoratzen du.

274. Bizkaierazko alfabetatzea Derion (MUN-043/012)

Bizkaierazko alfabetatzea egin zuen hiru udetan, Derioko seminarioan. Titulua atera eta gero egin zuen euskara batuko alfabetatzea. Majisteritza osoa euskaraz ikasi zuen.

275. Majisteritza euskaraz ikasi zuen (MUN-043/013)

Majisteritza osoa euskaraz egin zuen. Bigarren promozioa da Irene.

276. Unibertsitate garaia Bilbon (MUN-043/014)

Unibertsitate garaiko grebak, manifestazioak... asko euskararen inguruan izaten ziren. Neskak eta mutilak zeuden unibertsitatean eta irakaslegoa ere mixtoa zen. Ia ikasle denak bizkaitarrak ziren. Praktikan Otxandiok egin zituen.

277. Euskarazko alfabetatzeko irakaslea (MUN-043/016)

Euskarazko klaseak eman zituen Markinako Udalean eta gero Munitibarren, 1990-1991ean. Material pedagogikoak zituzten. Handik Gasteizera joan zen lanera eta urte batzuen ondoren Munitibarrera bueltatu zen. Markinako eskolan egiten du lan gaur egun.

278. Egungo etorkinak hezkuntzan: hizkuntza (MUN-043/019)

Eskolan lanean hasi zenean, Markinara joaten ziren etorkinak erraz integratzen ziren eta euskara ikasten zuten, nahiz eta gero haien etxeetan jatorrizko hizkuntza erabili. Gaur egun, ordea, Hego Amerikatik datozenek ez dute euskaraz ikasteko premiarik ikusten gaztelaniaz badakitelako. Horrek asko erdaldundu du Markinako herria, nahiz eta arnasgune bat izan.

279. Egungo etorkinak hezkuntzan: erlijioa (MUN-043/020)

Etorkin batzuk erlijioarekin lotuta daude eta hori eskolara eramateak arduratzen du Irene, eskola publikoa akonfesionala delako.

280. Gaur egungo haurrek autonomia gutxiago daukate (MUN-043/023)

Haurrek geroz eta autonomia gutxiago daukate, arrazonatzea kostatzen zaie... Gizartearen isla bat dela uste du Irenek, kalean ere berdina ikusten delak. Pandemiak ere kalte handia eragin zuen harremanen artean.

281. Sare sozialen eragina komunikazioan (MUN-043/024)

Gaur egungo komunikazio modua eskasa da. Haurrak ez dira gau gauzak ondo azaltzeko, sare sozialetan idazten den modua erabiltzen dutelako. Ereduak eskasak dira, baina gazteei ez zaie inporta.

282. Haurrak ez dira eskolara hezituta heltzen (MUN-043/025)

Eskolan irakurketa-plan garrantzitsu bat daukate. Ahozketasuna landu beharra dago eta haurrak etxetik hezituta joan behar dira eskolara. Baina ez da horrela izaten.

283. Umetako jolasak (MUN-043/026)

Umetako jolasak gogoratzen ditu: ezkutaketetan, harrapaketan, soka-saltoa, goma... Basoan txabolak egiten zituzten ere. Sokasaltoan eta goman gaztelaniazko kankak abesten zituzten. Euria egiten zuenean eliza azpian jolasten zuten.

284. Sancheskiarekin Gerrikaitzetik behera (MUN-043/027)

Ameriketatik osaba batek sancheski bat ekarri zion. Gerrikaitzera igo eta handik jeisten ziren. Patinak ere heldu ziren, botadunak eta metalizkoak.

285. Lehenengo GAC bizikleta (MUN-043/028)

Lehenengo bizikleta lehengusina baten bigarren eskuko GAC bat izan zen. Gizon bat zapaldu zuen behin. Gasteizen eskolara bizikletaz joaten zen.

286. Herri inguruan errekan bainatzeko lekuak (MUN-043/029)

Errekan karramarroak hartzen ibiltzen ziren. Ekaitza egoten zenean, osabak errekan amuak jartzen zituen eta hurrengo goizean beti zegoen zerbait. Bainatzera joaten ziren "Barkolontzi" izeneko lekura. Bengolako interpretazio zentroan ere bainatu daiteke.

287. San Juan sorbak eta kankak (MUN-043/033)

San Juanetako ohiturak mantendu egin dituzte eta urtero egiten dituzte. San Juan sorba bezperan egiten da eta hurrengo urtean erre. San Juanetako kankak.

288. Txikitako ipuinak (MUN-043/034)

Ama ipuin-kontalari oso ona zen. Txikitak kontatzen ziren ipuin bat kontatzen du Irenak.

289. Familiako gabon kankak grabatuta (MUN-043/035)

Amak asko kantatzen zuen eta Gabonetan beti ateratzen ziren kantuan. Gero, kanta hoiek grabatu egin zituzten eta CD batean ditu gordeta. "Abendu Santu honetan" kantatzen du.

290. Munitibarko Habixi elkargunea (MUN-043/037)

Gazte garaitan erregimenari aurka egiteko mugimendua zegoen. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekimenak ere egiten ziren. Habixi elkargunea sortu zen herrian eta orain ere ostiraletan zabaltzen da. Gaztetan ez zegoen gaztetxerik Munitibarren. Inguruko gazteekin biltzen ziren.

291. Lea Ibarreko herrien arteko harremana; udalekuak (MUN-043/038)

Lea Ibarreko biztanleen artean harremana egon da beti. Udan, udalekuetan elkartzen ziren eta txangoak egiten zituzten. Aulestiko gazte talde batek sortu zuen ekimena.

292. Gaztelaniaz egiteko joera handia (MUN-043/039)

Gernikara joaten ziren juergan eta denek gaztelaniaz egiten zutela gogoratzen du. Gero buelta eman zitzaion egoerari baina gaur egun gaztelaniaranzko joera orokortu egin dela uste du.

293. Barricada zen bere talde gustokoena (MUN-043/040)

Gaztetan entzuten zituen musika taldeak: Barricada, La Polla, Errobi... Denetarik entzun du (Ruper Ordorika, Egan, Itoiz...) baina musika gogorragoa du gustoko. Kontzertuetara eta erromerietara joaten ziren.

294. Musika entzuteko eta grabatzeko, kasetteak (MUN-043/041)

Musika kasettean entzuten zuten. Geroago etorri ziren CDak. Irratitik abestiak grabatzen zituzten eta zintari atzera egiteko boligrafoa erabiltzen zuten.

295. Telefonorik ez etxean; telebista, bai (MUN-043/043)

Telefonorik ez zuten etxean eta berak jarri zuen lanean hasi zenean. Hasieran herriarentzan zentralita bat zegoen. Bost urte zituenean ekarri zuten telebista etxera.

296. Munitibarko okina (MUN-043/044)

Aitak Munitibarko okindegian lan egin zuen, frontoi atzean. Ogia egin eta banatu egiten zuen. Gero baserriko lanetan ere aritzen zen.

297. Etxean hilerokoa tabua zen (MUN-043/045)

Etxean ez zen hilerokoaz hitz egiten, baina lagunen artean bai.

298. Munitibarko dendak (MUN-043/046)

Munitibarren hiru denda ezagutu ditu, baina aurretik beste ere egon omen ziren. Gaur egun Ondamendi taberna-denda daukate eta denetarik daukate bertan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com